

DATORRENA

1916-2016; rona, sodomia eta
zartailua mende batez IÑAKI SOTO > 3

IOSU TXAPARTEGI «TXAPAS»:

«Injustizia handien kontra egingo
duen jendea hezi behar dugu» > 22

2016ko urtarrilaren 9a | IX. urtea • 450. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



IHES EGITEKO BEGIRADAK

GATIBUTASUNARI AURRE EGITEKO GARATZEN DU SORKUNTZA PRESOK, ESPETXEKO DENBORA BERE
EGITEKO, DENBORAREN BESOETAN ERORI AURRETIK. SORMENAK, ERA BEREAN, ESPETXETIK IHES
EGITEN LAGUNDU DEZAKE; BEGIRADA BAT NAHIKOA DA HORRETARAKO > 12 Oier ANDUEZA euskal presoak egindako lana | UTS.EUS



Arerioa zapaltzeko aitzakia bihurtu dute fundamentalistek behi haragia Indian 04

Moldavia, Europako herrialderik pobrenean bizirik nola iraun 07


Sorkuntza presoarentzat, ihesbidea ez ezik, ihesaldia 12

Bai&by euskarazko sistema adimenduna garatzen ari da 17

E.lkarritzeta: Iosu Txapartegi «Txapas», hezitzailea 22

Kalabaza eta bere haziak 26

In fraganti: Jessica Berra 28



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** 1916-2016; rona, sodomia eta zartailua mende batez

10 **Saioa Aginako:** Intuizioa saiatzen

11 **Mikel Zubimendi:** Ez delako goiz, ez dadila beranduegi izan

16 **Dani Fano**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Jantziak

21 **Laura Mintegi:** Ez da kopuru kontua, justiziazkoa baizik

26 **Antton Izagirre:** Zaharrak berri

26 **Andoni Egia:** Ispiluaren aurrean

30 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Gabon solidariorik ez dago, konponbidea politikoa delako



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iñaki Soto

1916-2016; rona, sodomia eta zartailua mende batez

Aurten irlandar matxinoak altxatu zirenetik 100 urte betetzen dira eta Irlandan ospakizunek eztabaida piztu dute. [Gertakari hauei buruz zerbait jakin nahi duenarentzat euskarazko Wikipediaren sarrera benetan txukuna da: <https://goo.gl/yy6LW4>]. Urtemuga borobil honek eztabaida desberdinak piztu dituela eta, orokorrean, eztabaidaren maila igo egin dela ere esan daiteke. Hein batean, bere buruarekin eztabaidan ari den nazioaren sentsazioa berpiztu zait han egon naizen astean, azken urteetan Katalunian eta Eskozian izan dudaren antzeko sentsazioa, hain zuzen ere.

Egunkarietako "Iritzia" sekzioen gai nagusia hau da. Ospakizun ofizialei buruzko eztabaida piztu da kulturgile eta historiagileen artean, adibidez. Liburu dendetan apal bereziak jarri dituzte argitaratzen ari den material guztia aurkezteko. Nonahi mahai inguruak antolatu dituzte. Jakina, Aste Santua gerturatu ahala ekitaldiak biderkatu egingo dira. Aldi berean, diasporaren eraginez, ekitaldiak mundu osoan zehar zabalduko dira. [Euskal Herrian zerbait antolatzea ondo legoke, ahal dela bertan bizi diren irlandarrekin batera, ahal bada ez-alderdikoa, agian bai partisanoa].

Nolanahi ere, urtemugarren hasiera honetan bi ekin tzek deitu dute nire arreta. Lehena, RTE telebista kate publikoak gertakari hauei buruzko "Rebellion" produkzio berezia egin du. 6 milioi euro inbertitu dituzte, Aku Louhimies finlandiarra da zuzendaria, Belfast-Dublin-Londres triangeluan garatzen den fikzio dramatizatua da, bost atal ditu eta lehendabizikoa iragan igandean eman zuten. 619.000 ikuslek jarraitu zuten, audientziaren %41.

Hango telebista publikoarentzat inbertsio itzela izan arren, parte bat berreskuratuko dutela diote, AEBetan eta Britainia Handian banaketa ziurtatu dutelako. [ETBrentzat produktu aproposa dela uste dut eta etxe horretako agintariak erosteko aukera baloratu beharko lukete. Edonola ere, audiobisualetan dabilzanentzat ikuspuntu profesionaletik ikasgai polita dela uste dut, eredu bat].

Bigarren ekimena astero-astero, urtean zehar, irla osoko kioskoetan banatuko den egunkari berezia da. "Revolutionary Papers 1916-1923" deitzen da eta Trinity College

unibertsitateko Centre for Contemporary Irish History-ren ardurapean argitaratzen da, Liburutegi Nazionalaren babesarekin. Gertakari historikoen azalpenarekin batera, garaiko egunkarien faksimileak biltzen ditu. [ikusi www.therevolutionpapers.ie]. Howth herriko kioskoetan, Antrimeko gasolindegietan eta Dublingo aireportuan ikusi dut saltzen. Lehendabiziko alea, Pazko Altxamenduari buruzkoa, bikaina da, pedagogikoa eta dotorea.

RONA, SODOMIA ETA ZARTAILUAREN BARKUAN, JATOR, GUSTURA

Urtemugaz gain, Errepublikan hauteskundeak izango dituzte laster, agian otsailean. Errepublikanoentzat, Sinn Feinentzat, aukera ona da, bai emaitza onak lortzeko, baita agenda eta eztabaida publikoa markatzeko ere.

Lehen aipatu dut Irlandako giroari Eskozian eta Katalunian bizi izan direnen antza hartu diodala, iraganaz eta batez ere etorkizunaz eztabaida nazionala piztu den hei-

Gainontzeko sukarrak pasata, beti geratzen zaigu Irlanda, gure «Dortoka Irla». Anaitasun harreman bat dugu beraiekin. Eta auzi askotan hango komunitateak eredugarriak dira guretzat

nean. Inbidia ematen didate, zentzu horretan. Gure eztabaidak, beharrezkoak guztiak, oraindik orain alderdien barrukoak dira, parrokiakoak ezer baino gehiago. Nolanahi ere, urtemugaz harago, Irlandako ekimena bereziki interesgarria iruditu zait guretzat.

Izan ere, gainontzeko sukarrak pasata, beti geratzen zaigu Irlanda, gure "Dortoka Irla". Anaitasun harreman bat dugu beraiekin. Eta auzi askotan hango komunitateak, hango mugimenduak, hango joerak, eredugarriak dira guretzat. Gure bertute eta bizio komunak, aldeak alde, beraien antzekoak dira (beraiek gerlari iaioagoak izan ziren eta gu langile hobeagoak; orain ez dakit). The Pogues taldearen diskoaren azalean bezala, irlandarrekin egiten dugun bidaian sufrikarioa egongo da, tragedia puntu bat, baina ezin dibertigarriagoa izango da: rona, sodomia eta zartailua bermatuta daude, beste ehun urtez. •

BEHIA, ANIMALIA POLITIKOA

Arerioa zapaltzeko aitzakia bihurtu dute fundamentalistek behi haragia Indian

 **JENDARTEA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Azkenaldian Indian datozen berrietan gero eta sarriago irakurtzen ari gara halako edo holako herrixkan herritar bat, kasu denetan musulmana, heriotzaraino lintxatu dutela. Hona hemen adibide gisa orain dela hiru hilabete pasatxo jasotako berria: familia bat behi haragia jaten ari zen zurrumurrua zabaldu zuten herrixka bateko hinduek –Narendra Modi lehen ministroaren BNP (Bharatiya Janata Party) alderdiko kideak ziren–, eta, ondorioz, jende-pilo bat makilak eta matxeteak eskutan familiaren etxean sartu zen, aita heriotzaraino lintxatuz. Bere semeetako batek hil ala biziko egoeran jarraitzen du, komatik ezin aterata. Krimen horren “arrazoia”: behi sakratuari burla egitea, erlijio hinduan sinbolo beneratua den behi bat hil eta haren haragia jateagatik. Biktimaren izena: Mahammad Hasmat Ali, Manipur estatuko herrixka bateko madrasako burua.

Indian, herrialde erraldoia den heinean, gisa horretako “gertakizun” andana daude, eta, batzuek diotenez, normaltasun baten baitan koka daitezkeen “turbulentziak” dira. Baina, gertatutakoa, zoritxarrez, ez da gertakari isolatua. Behia animalia politiko bilakatzeak erlijio manipulazioa du xede, komunitateen arteko tentsioa bultzatzea. Behia instrumentalizatu nahi da polarizazio berri bat bultzatzeko, fundamentalista hinduen muturreko ideologia erlijiosoa inposatzeko. Erlijioa ulertzeko euren moduarekin bat ez datozen oro zanpatzeko. Hinduen eskritura santuak izugarrikeriak esplikatze baliatzen dira: «Behia hiltzen duen edonork hiltzea merezi du, behia hiltzea hil ala bizikoa delako hinduen komunitatearentzat». Eta horrela mintzo dena ez da fanatiko zoro bat, BJP alderdiaren korronte ultrena den RSS (Rashtriya Swayamsevak Sangh) taldeko buletin ofiziala baizik. Eta, behia, aitzakia. Izan ere, gertatzen ari denaren testuingurua hobeto ulertzeko, Indiako egun-

Azkenaldian behi haragia jan duten musulmanen lintxamenduak ugaritu egin dira Indian. Behi haragia dekretuz debekatzen ari dira. Behia sinbolo politiko bilakatu dute agenda erlijioso hindu fundamentalista ezartzeko. «Behi politiko» erabiltzen da botereaz abusatzeko, inpunitate osoz, erlijio batek beste bat azpiratzeko.

go lehen ministroa bera RSS taldearen produktu bat dela esan behar da.

“Behia gure ama da”, “behia hiltzen duenak hiltzea merezi du” eta gisako ideiekin behi haragiaren debekua ezarri nahi dute orain India osoan. Intolerantzia erlijiosoa nagusi den eztabaidaren erdian kokatzen da estatuz estatu barreiatzen ari den behi haragia debekatzeko


mugimendua. Gobernu batek azukrea debekatzeko erabakitzearen pareko den edo ez eztabaidatzen kateatzeke, zerbait argi dago: neurri hori ezarrita, abeltzaintza sektorean, bufaloaren haragi esportazioan eta gizarte arazo larria den nutrizioan ondorio larriak izango dituzte. Izan ere, musulmanak mendeetan zehar jan dute behi haragia, eta kristau askorentzat zein kas-

ta baxuetako –edo isilean jaten duten kasta altuagoetako– hinduentzat proteina iturri ezinbestekoa da. Hortaz, hinduen begetarianismoa eta behiaren sakralizazioarekiko errespetua baino askoz gehiago dago jokoan. Begirada bat bota diezaiogun, bada.

BEHIA, JAINKO GUZTIEN AMA

Ez, hinduek ez dute behia jainkotzat hartzen eta ez diote otoitz egiten. Begetarianoak izaki, behia bizitzaren sinbolo sakratutzat dute, babestu eta beneratu beharreko sinbolotzat. “Vedas” izeneko hinduen eskriturarik zaharrenean behia Aditirekin –jainko guztien amarekin– lotzen da. Hinduismoaren iruditerian sarri ageri da behi sakratua –gehienetan zuria–, lo-reekin apainduta. Are, hinduek *Gopastami* edo Behiaren Eguna ere ospatzen dute eta haziendetan edo kalean suelto –eta sarritan plastikoak janez– dabilta-

Hinduek jainko guztien amatzat daukaten eta beste askorentzat proteina iturri ezinbestekoa den behia gurtzeko agurra.
GAUR8



«Gure seme-alabekiko dugun atxikimendua baino indartsuagoa da behiaren duguna. Behi bat hiltzen duen oro hilda dago. Gu geu arduratuko gara horretaz»

Hinduismoa mugimendu, tradizio eta indar ezberdinez josita egon da historikoki. Orain pasibo eta tolerante izateari utzi eta oldarkor eta militante bilakatu nahi dute batzuek

nak garbitu eta loreekin adorna-tzen dira. Hinduentzat behia partikularki eskuzabal eta otz-na den kreatura da, trukean ja-sotzen duena baino askoz ere gehiago ematen diona gizakiari.

Datu historiko eta arkeologi-koek, ordea, oso historia ezber-dina kontatzen digute. Anima-lien sakrifizio mota ezberdinak jasota datoz “Vedic” antzinako eskritura santuetan (21 sakrifi-zio mota, hain zuzen), eta, in-dusketa arkeologikoek demos-tratu dutenez, behi eta idien sakrifizioa ohikoa zen; pentsa, animalion haragia hinduen nu-trizioaren parte inportantea zen.

Sineskera erlijioso eta datu ar-keologikoak gorabehera, kontua da boterera heltzean Modik «gure behien sakrifizio masibo-aren» kondena hartu zuela hiz-pide. Handik gutxira, BJP alder-diaren itzaletan, “Salba Dezagun Behia” izeneko zaindari taldeak sortu ziren, zenbait herrixketan talde paramilitar gisa antolatu-ta; musulmanen etxeetan eten-gabe sartzen hasi ziren hozkailu eta biltegietan haragi bila mia-keta bortitzak eginez. Duela gu-txi talde horretako hamar kide atxilotu dituzte hozkailuan ha-ragia gordetzeaz akusatutako musulman baten lintxamendua egotzita. Epaiketan haietako ba-tek honakoa adierazi zuen: «Gu-re seme-alabekin dugun atxiki-mendua baino indartsuagoa da behiarekin duguna». Oso mezu argia bidali zuen: «Behi bat hiltzen duen oro hilda dago. Gu geu arduratuko gara horretaz».

INDIA, HINDUEN PAKISTAN BERRIA?

Definizioz sekularra den estatu batean behia ortodoxia erlijioso baten sinbolo egiteak hindui-smo forma berri baten zabalkun-dea adierazten du. Hinduismoa, gauza eder askoak dituen erli-jioa izanagatik ere, mugimendu, tradizio, indar eta kontraindar ezberdinez josita egon da histo-rikoki. Orain aldatu egin nahi dute hori: pasibo eta tolerante izateari utzi eta oldarkor eta biolento bilakatzen ari den hin-duismo militante bat bilatzen dute, ikuskera bakarraren mo-nokultibo landuko duena.



Hinduek ospatzen duten «Gopastami» edo Behiaren Egunaren irudi bat. GAUR8



Behi haragia hozkailuan izateagatik lintxatutako musulman baten hileta. GAUR8

Indiako Errepublikaren oina-rria sekularra izan da sortzetik beretik. Azpikontinentearen 1947. urteko zatiketaren ondo-ren eman ziren izugarrikerien ondorioz milioika musulmanek iparralderantz ihes egin zuten, Pakistanera, eta milioika hin-duek ere beste horrenbeste egin zuten kontrako norabidean. In-dia berriaren sortzaileek «seku-larismoaren printzipioan oina-rrituko zen nazioa» finkatu zuten, gutxiengoei nazio ber-rian leku egin nahian. Indiak, hortaz, ez zuen erlijio naziona-lik izango eta ez zuen lege mai-lan ezberdintasunik egingo fede ezberdinen artean. Herrialdea-ren lehen gobernuan, kasta ez-berdinetako hinduez gain, mu-sulmanak, kristauak eta parsi eta sikh bana zeuden. Herritar guztiek, legearen aurrean trata-mendu berdina izango zuten promesa bere egin zuen Indiako Estatuak. Hori, baina, ez da au-keria eta emaitza berak izango diren sinonimo.

Indiako musulmanek 170 mi-lioi laguneko gutxiengoa osa-tzen dute egun. Hori bai, he-rrialdearen barruan gutxiengo izanagatik, Indonesian soilik bi-zi dira Indian baino musulman gehiago. Pakistanen bertan mu-sulman gutxiago daude Indian baino. AEBetako afroamerika-rrak bezala, beraiek ere osatzen lagundu duten herri eta kultura bateko kide marjinalak dira. Banku kredituetara, osasungin-tzara eta lehen hezkuntzara ere sarrera gaitzagoa dute. Hala, musulman gehienek ekonomia-ren “sektore informalean” egi-ten dute lan: artisauak dira, kale dendariak, peoiak... Oso-oso gu-txi dira administrazioaren goi postuetan lan egiten duten edo Mercedes autoak gidatzen di-tuzten musulman indiarrek.

Musulmanek beti ikusi izan dute Nehruren Indiako Kongre-su Nazionala sekularismoaren berme indartsu eta musulma-nen defendatzaile gisa. Histori-koki modu masiboan eman dio-te botoa. Baina ustelkeriak jotako “beren” alderdiaren po-rrota ia apokaliptikoa izan da. Modiren garaipen ikusgarriare-kin kolpe latza hartu dute.

Narendra Modi lehen minis-troak sekularismoaren balio sa-krosantuaren haustura nabar-men bat islatzen du. 2002. urteko istilu odoltsuetan izan zuen papera oraindik ere oso ez-tabaidagarria den arren (BJP al-derdiaren aita ideologiko eta militantea den RSS talde maku-rrak bultzatuta, Modi Gujarat estatuko buru zenean hinduek 1.000 musulman baino gehiago hil zituzten, horietako asko lin-txatuta, eta gobernuburu gisa Modik ez zuen askorik egin hil-keta masibo hura gelditzeko), bere alde bozkatu zuten milioi-ka indiarrentzat, historikoki In-dia gobernatu duten mendebal-dartutako figura anglofonoen aurrean bertako seme aszetiko eta errukiorra da, “bene-beneta-ko hindua”. Hinduek dominatu-tako India amets duten RSSko chauvinistentzat, Modi ametsa-ren indultzentzia da, nolabaiteko gauzapek zerutiarra. Biziki mai-te eta adoratzeko dute. India hin-duen herri egiteko behar dute, edo, nahi bada, “Hinduen Pakis-tan bat”, hinduen mitologia eta munda ikuskera modu ortodo-xoenean aplikatuz, Pakistanen ohikoa den legez muturreko er-lijoaren erabilpena esplotatuz.

Batzuen ametsa besteen amesgaizto. Indiako musulma-nek urte askoan etorriko ez zela espero zuten amesgaiztoaren etorrera suposatu du Modik.

KANPOAN USO, ETXEAN OTSO

Indiarrak sarritan desesperatu egiten dira berezkoa duten de-mokraziarekiko atxikimendu masiboa dela eta. Eta agian ho-rregatik, askok nahi zuten Modi diktadore onbera bilakatzea, no-labait, Txinako “burdinazko gi-daria” formularen aurrean, In-diaren erantzuna bihurtzea. Baina India ezin daiteke Txina izan arrazoi ugariengatik, ho-rien artean seguru aski inpor-tanteena askoz zailagoa dela on-gizate kolektiboaren ikuskera jakin bat goitik behera indiarrei inposatzea txinatarrei baino.

Modi lehen ministro hautatu zutenean, nazioarteko komuni-kabideetan India bere ekonomia zabaltzen, kanpo inbertsioak erakartzen eta pobrezia borro-



Goian, behiari erreberentzia egiten dion emakumezko hindua. Beheko irudian, kinka larrian egon daitekeen bufalo hiltegietaiko bat. GAUR8

katzen saiatuko zela azpimarra-
tu zen.

Modik bere burua asko zain-
tzen du. Munduan zeharreko bi-
daietan usoaren papera joka-
tzen du; soslai baxuaz aritzen
da, estridentziarik gabeko adie-
razpen publikoak eginez eta so-
zialki engaiatutako mezuak za-
balduz. Baina etxean otsoaren
pare jokatzeko du. Isil-isilik man-
tentzen da bere alderdiaren
menpe dauden estatuetaiko bu-
ruek hartzen dituzten erabaki
polemikoaren aurrean. Poliki-po-
liki errekonkista gauzatu eta
hinduismoaren ortodoxia ezar-
tzeko darabilten agenda oldar-
korren inguruan ez dio ezer.

Adibideak argigarriak dira: In-
diako hegoaldeko Tamil Nandu
estatuan BJPko gobernuburuak
erabaki du meskitak, tenplu
hinduak ez bezala, ez direla toki

sakratuak, eta, beraz, eraitsi
egin daitezkeela. Alderdikide
duen India iparraldeko Haryana
estatu buruak derrigorrezko
egin du “Bhagavad Gita” hin-
duen eskritura sakratua eskole-
tan irakastea. Eliza kristau askok
eraso bortitzak jaso dituzte; ha-
la, 71 urteko moja bat taldean
bortxatu zuten mendebaldeko
Bengala estatuan. Fundamenta-
listek atmosfera horretan bila-
katu dute behia animalia politi-
ko, eta, heriotzaren arriskua
presente eginez, musulmanak
behi haragia jateagatik lintxatu
dituzte. Edo potentzialki sekula-
ko eztanda soziala eragin deza-
keen behi haragiaren gaineko
debekua ezarri dute.

ETORKIZUN TRAGIKOA BEGI BISTAN

Abeltzaintza sektoreak, haragia
proteina iturri ordezkazekin du-

ten milioika indiar musulma-
nek, galdera ugari dituzte eran-
tzun gabe: behi haragia debeka-
tzen badute, bufaloarena ere
debekatzera iritsiko al dira?
Hinduen begetarianismoa de-
kretuz inposatzera iritsi al dai-
tezke? India bufalo haragiaren
mundu mailako esportatzaile
handienetakoa dela kontuan
hartuz, zer gertatuko da langa-
bezian eta pobrezian gera dai-
tezkeen milioika pertsonekin?


BJP alderdiko eta RSS mutu-
rreko taldeko arduradun ezber-
dinen adierazpenei jaramon
eginez gero, behiaren ondotik
bufaloa dator. Behia ez bezala,
bufaloa sakratua ez den arren,
espezie biak “ahaideak” diren ai-
tzakiapean, debeku hori ere etor
daitekeela aurreikus daiteke.

Eta hori guztia, buztanaren
truke bere begiak saldaz sato-
rrak egin zuen bezala, Indiako
gizartean emandako aldaketei
bizkar emanda egin nahi da. Ira-
ganean osoki begetarianoak zi-
ren gurasoei eta euren tradizio-
ei errespetua erakustearren
etxean sekula jango ez zuket
bufalo (eta baita behi) haragia
jaten dute egun indiar gazte as-
kok. Aski da Indiako edozein hi-
ri erraldoi bisitatzea jatetxe txi-
ki askotan bufalo eta behi
haragiarekin egindako xerrada
eta kebab on askoak zerbitza-

tzen dituztela egiaztatzen. Ho-
riek guztiak ere ixtera ausartu-
ko al dira?

Finean, baina, kontua askoz
errazagoa da: musulmanen lin-
txamenduek erakusten dutena
da animalia gisa behiaren esta-
tusa nahitara aldatu dutela, sin-
bolo politiko bilakatzeraino,
agenda erlijioso fundamentalis-
ta hindua ezartzeko. “Behi poli-
tikoa” boterearen abusurako
erabiltzen ari dira fundamen-
talistak, inpunitate osoz, ortodo-
xia muga harrigarrienetara
eramanez, erlijio batek beste bat
azpiratzeko.

India eta bertako zibilizazio
eredua hinduismoaren funtsez-
ko printzipio baten inguruan
egituratu izan direla esan daite-
ke: *sarva dharma sambhava*,
hots, egia eta erlijio guztien har-
monia eta berdintasuna. Hortaz,
hinduismoaren izenean hiltzen
den indiar ororen heriotzak,
hinduismoa bera apur bat hil
eta osoki desohoratzen du. Har-
tutako bidea zuzendu ezean, jo-
kaldi politiko zital hori gelditu
ezean, etorkizun tragiko bat ate
joka dugu. Abisatuta gaude.



Hinduismoaren ortodoxiak aginduta behi haragia debekatzeko badute, bufaloarena debekatzera ere iritsiko al dira?
Begetarianismoa dekretuz inposatzeko al dute?

Non geratu da Indiaren eta bertako zibilizazio ereduaren funtsezko printzipioa izan den «sarva dharma sambhava» (egia eta erlijio guztien harmonia eta berdintasuna)?

MOLDAVIA

Bizitzea ezinezkoa denean edo nola bizirik iraun Europako herrialderik pobreenean

📁 JENDARTEA / Pablo Gonzalez

Moldavian bizitzea biziraupen proba batean esku hartzearen tankerakoa da. Ekonomia erabat jota dago eta herritarren heren batek alde egin du jada herrialdetik. Eta bertan geratzen direnek, malabarismoak egin behar dituzte bizirauteko. Ezagutu dezagun sozialismoa kapitalismoarekin ordezkatzeko egin den ahalegin negargarrienetako bat.

Bidaia agentziak, kanbio bulegoak eta bigarren esku-ko luxuzko autoak bazter guztietan ageri dira Chisinau Moldaviako hiriburuan. Errumania eta Ukrainaren artean dago garai batean Sobietar Batasuneko errepublika izandako herrialdea. Elementu horiei esker hobeto ulertzen da estatistiken arabera Europako herrialderik pobretuena denaren egoera. Bertakoak kosta ahala kosta aurrera egiten saiatzen dira, baina askok dagoeneko etsi egin dute eta herrialde aberatsagoe-tara joan dira.

Parez pare ageri zaigu lehen elementua: bidaia agentziak. Batez besteko soldata 180 eta 190 euro artekoa den herrialdean, pentsioak 50 eta 70 euro artekoak diren herrian, sinesgaitza egiten da herritarrek Italia, Espainia edo Eskoziara oporretara joan ahal izateko dirua aurrezte, baina horiek dira erakusleihatetan iragartzen diren helmuga turistikoak. Bidaia horiek normalean autobusez egiten dituzte: kasu askotan atzealdean atoi bat izaten dute ibilgailuek, bidaiarien gauzak eraman ahal izateko.

Argi dago moldaviar horiek guztiak herrialdetik ateratzen direla ez oporretara joateko, Europar Batasuneko herrialderen batean prestakuntza txikia behar duen lanposturen bat lortzeko esperantza baizik: garbiketari, nekazaritzan, adinduak zaintzen, eraikuntzan... baita prostituzioan ere. Horiek dira migrante horiek hartuko dituzten sektoreak.

Moldaviarrek beraiek onartzen dute bertako egoera horixe dela. Hori da atzerrian duten aukera, eta, oso gustagarri ez den arren, gosea pasatzen Moldavian geratzea baino hobea da, batez ere ume txikiak eta zaharrak ardurapean dituztenentzat.

KANBIO BULEGOAK

Ume txikiak eta zaharrak aurrera ateratzeko moldaviar askok kanpora alde egin beste irtenbiderik ez dute ikusten. Horregatik dira hain ugariak dira kanbio bulegoak Chisinaun. Stefan Cel Mare da bertako kale garrantzi-

Atzerriara lanera joateko bidaia normalean autobusez egiten dituzte moldaviarrek: kasu askotan atzeko aldean atoi bat izaten dute ibilgailuek, bidaiarien gauzak eraman ahal izateko.

Pablo GONZALEZ

tsuena: beste edozein hiritan era guztietako dendaz beteta egongo litzateke, baina Moldaviako hiriburuan kanbio bulegoak dira nagusi: establezimendu guztien heren bat gutxi gorabehera. Txartel handitan azaltzen dute nola dauden kotizazioak. Euroak, dolarrak eta errubloak dira nagusi.

Herritar guztiek dakite Moldaviako ekonomiaren zati inportante bat kanpoan dauden moldaviarrek bidalitako diruan oinarritzen dela. Ez dago jakiterik zenbat diru bidaltzen duten, zatirik handiena inon deklaratu gabe eta zergarik ordaindu gabe pasatzen baita atzeritik herritarren poltsikoetara.

BCM Moldaviako Banku Zentralak egindako kalkuluen arabera, kanpoan bizi diren moldaviarrek 2014an 1.515 milioi euro bidali zituzten, urte bereko barne produktu gordinaren %20 gutxi gorabehera. Inon deklaratu gabeko dirua erantsiz gero, barne produktu gordinaren

%30etik gora joango ginateke. European oso herrialde gutxi izango dira kanpotik bidalitako diruarekiko horrenbesteko menpekotasuna dutenak. Horretxegatik dira hain negozio ona kanbio bulegoak.

MIGRANTEEN DIRUA

Ez da harritzekoa, atzerriko horrenbeste diru jasotzen duen herrialdean. 2013an, kanpotik iritsitako diruaren %68 Errusian bizi diren moldaviarrek bidali zuten: milioi erdi herritar inguru bizi da Putinen herrialdean. Munduko Bankuaren arabera, beste herrialde batzuetan beste 200.000 moldaviar inguru bizi dira. Moldavian bertan herritar askok esaten dute milioi bat moldaviarretik gora izango direla atzerrian bizi direnak, herrialdeak hiru milioi biztanle baino ez dituenean.

Atzerriara joatea da herritar askok egin dezaketen amets bakarra. Herritar gehienek esango dizute Moldavian bertan baino



hobeto beste edozein lekutan bizitzen dela. Hala ere, jaioterri-
ra itzultzen dira aukera duten
bakoitzean. Errusian edo Euro-
par Batasuneko herriren batean
lan eginez ahal duten diru guz-
tia aurrezten dute, Moldaviara
itzuli eta etxe hobearen erosteko
asmoarekin. Herritar askok auto
onari ematen diote lehentasu-
na, estatus soziala adierazteko
produktu garrantzitsua delako-
an. Badirudi Moldavian zure ba-
linoa zure autoarena dela. Oso
gauza xelebrea gertatzen da: he-
rritar asko bizi diren etxeak au-
toa baino merkeagoak dira. Hori
bai, luxuzkoak diruditen auto
asko bigarren edo hirugarren es-
kukoak izaten dira, Europar Ba-
tasunetik ekarritakoak.

Gazte askorentzat, etorkizuna
iluna da. Aurrera ateratzeko au-
kera gutxi ikusten dute Molda-
vian bertan. Herrialdean bertan
lanbide-prestakuntza handiko
eskulan gutxi behar da. Zerbi-
tzuak dira gaur egungo ekono-
miaren sektorerik garrantzi-
tsuena. Kanpotik jasotako diru
guztia gastatzea dirudi ekono-
mia honen lelo nagusia.

BALANTZA KOMERTZIALA

Horrela, produktu asko inporta-
tzen dira, eta oso gutxi esporta-
tu: balantza komertziala 2.500
milioi eurokoa da, negatiboa. Es-
portatzen duena halako bi in-
portatzen du Moldaviak. Kanpo-
ra joandakoek bidalitako diruak
orekatzen ditu kontuak.

Hala ere, sistemak egonkortas-
una izan badu. Arazo handirik
gabe egin du aurrera krisiaren
urte gogorrenetan ere. Gero eta
herritar gutxiago bizi da Molda-
vian bertan, eta horrek eragiten
du behar ekonomikoek ere be-

**Herritar guztiek dakite Moldaviako
ekonomiaren zati inportante bat kanpoan
dauden moldaviarrek bidalitako diruan
oinarritzen dela**

**BCM Moldaviako Banku Zentralak egindako
kalkuluen arabera, kanpoan bizi direnek
2014an 1.515 milioi euro bidali zituzten, barne
produktu gordinaren %20 gutxi gorabehera**



Goiko irudian, Moldavia
Europara hurbiltzearen
aldeko ekintzaile bat,
Chisinau hiriburuan.
Eskuinekoan, Galina
irakaslea.
Pablo GONZALEZ



hera egitea. Kamera geldoko he-
riotza dirudi, baina atzerabide-
rik ez duena, egoera aldatu eze-
an. Horixe da moldaviarrek
nahi dutena: aldaketak.

Herritarrek behartu nahi di-
tuzten aldaketa horiek, iristeko-
tan, hirietatik etorriko dira. Izan
ere, Moldaviako populazioaren
%60 inguru nekazaritza ere-
muetan bizi bada, horietan bizi
direnek ez dute esku hartzen ez-
tabaida politikoan, erabat pasi-
boak dira politikari dagokionez,
eta Chisinaun garatzen diren
mugimendu politikoetatik
urrun bizi dira.

Hirietan bizi diren moldavia-
rrak gero eta zatituago daude. Hi-
ru jarrera politiko bereiz daitez-
ke. Alde batetik gehiengo pasiboa
dago, Errusiara hurbildu nahi
duena. Moldavian ez da harritze-
koa Ukrainan eta Georgian dago-
eneko erabat desagertuta dauden
ikurrak edonon ikustea. Chisi-
nauko erdigunean Putin Errusia-
ko presidentearen erretratoa du-
ten kamisetak erosteko aukera
izaten da. Baita Sobietar Batasu-
naren ikurrak ere, Moldavia bere
garaian aipatu batasuneko erre-
publiketako bat baitzen. Horrek
esplikatzeko du moldaviar askok
bere burua egungo Errusiarekin
lotuta ikustea, bera baita Sobie-
tar Batasunaren egungo oinorde-
koa (ez ideologikoa, baina espi-
rituala bai).

Ez da sinpatia kontua, pragma-
tismoa baizik. Irina izeneko hiri-
buruko ikasleak, esaterako, argi
dauka: «Gure produktuek Euro-
par Batasunean ez dute merkatu-
rik, eta Aduana Batasunean [Erru-
siak bultzatuta Sobietar Batasuna
zenetik irtendako estatu batzuek
osatzen dute] badago produktu
horiekiko eskaririk». Edonola ere,
ikasleak uste du Moldaviak bloke
handietatik kanpo egon beharko
lukeela, «guztiekin harreman
onak izanik».

Tankerako iritzia eskaintzen
digute Vlad eta Adrian gazteak.
Lehen lanpostuaren bila dabil-
tza eta ez dute herrialdea utzi
nahi: «Gure herrialdean bizi
nahi dugu, baina hemen eskain-
tzen diguten diruarekin bizitzea
ezinezkoa da, batez ere neguan
berokuntzaren eta argindarra-
ren fakturek gora egiten dutene-



an. Horregatik herritar askok alde egitea erabakitzen dute». Eransten digute beren ikasketekin aurrera ateratzea errazagoa dela Errusian Mendebaldeko blokean baino.

Mendebalderantz begiratzeko joera politikoa duten moldaviarrek aurrekoak baino aktiboagoak dira, baina errusiazaleak baino gutxiago dira, kopuruari dagokionez. Batzuek nahi dute Moldavia Errumanian sartzea. Beste batzuek, Moldavia Estatu independente moduan Europar Batasunean sartzea. Arazo bera egin behar diote aurre: beraien jaioterrian aurrera ateratzeko, duintasunez bizitzeko, aukera gutxi izatea.

NEKAZARI EREMUAK

Igor Mocanu ekintzaile gaztea Moldavia Errumanian sartzearen aldekoa da: «Gure herrialdeko ekonomia porrot egiteko arriskuan bizian dago. Atzerri-rik bidalitako laguntzarik gabe, ezinezkoa izango da Moldaviako egoera bere onera ekartzea. Garrantzitsuena egonkortasun politikoa izatea da, herrialdea garatu ahal izateko».

Hirietako moldaviarrek etorkizunari begiratzeko joera badute, nekazari eremuetakoek nahikoa lan dute bizirik jarraitzearekin. Izan ere, herrietako egoera oso ez-

berdina da: herritar gutxi dute etxean gasa bezalako erosotasunik. Hori bai, fruituak eta barazkiak landatzeko aukera dutenez, tripa betetzea hirietan baino errazagoa izaten da. Gainera, ohikoa da herri txikietan bata besteari elkar laguntzea, eta herritar askok era horretan konpontzen dituzte arazoak.

Fenomeno horren adibiderik garbienetako bat Recea herrian dugu. Chisinau hiriburutik 130 kilometrora eta Beltsi Moldaviako bigarren hiritik (Transnistria alde batera utzita) 25 kilometrorara dago. Garai batean herria autopista garrantzitsu batean zegoen, Ukrainako Odesako portutik Bielorrusiako Brest hirira, Poloniako mugan, zihoan errepidean. Sobietar Batasunaren garaian izan zuen garrantzia galdu egin du ordea, eta gaur egun bigarren mailako bide bihurtuta dago.

Receak 3.300 biztanle ditu. Mila etxe inguru, baina horietako 70ek baino ez dute gasa. Ez da harritzekoa, gasa etxeraino eramateak 700 euroko kostua duelako, eta eskualdeko batez besteko soldata 1.000 moldaviar leukoa (47 euro) denean. Horregatik, Galina irakasleak bezala hilean 285 euro irabazten dituztenak aberastzat jotzen dituzte. Baina kopuru hori ere txi-

kiegia da eta irakasleak nabarmentzen digu etxean baratzea edukitzea oso inportantea dela: «Patatak eta erremolatxak ditugu. Osasun zerbitzuari eta komunikazioei dagokienez, gutxieneko zerbitzuak ditugu herrian. Hori bai, negua iristen denean, ahal bezala egiten dugu aurrera, elektrizitatea eta gasa oso garesti baitaude, eta askok gasik ere ez dute etxean. Egoera horretan, elkartasuna, herritarren arteko maileguak, ezinbesteko bihurtzen dira».

Beste muturrean dago Elena 65 urteko erretiratua. Alargunduta dago eta 38 euroko pentsioa kobratzen du. Gasa, argindarra, telefonoa, ura eta zabor bilketaren fakturak ordaintzeko 75 euro beharko lituzke hilero. Horri erantsi behar zaizkio janaria, arropa eta bestelako gastuak.

Bi neska gazte herrialdeko oligarken erretratuei dardoak jaurtitzen. Herritar gehienak nazka-nazka eginda dauzkate agintariak.
Pablo GONZALEZ

Herritar askok auto onari ematen diote lehentasuna, estatus soziala adierazteko produktu garrantzitsua delakoan. Badirudi Moldavian zure balioa zure autoarena dela

Hirietakoek etorkizunari begiratzeko joera badute, nekazari eremuetakoek nahikoa lan dute bizirik jarraitzearekin: gutxi dute etxean gasa bezalako erosotasunik

Seme-alaben laguntzarik gabe ezin izango luke aurrera atera. Dagoeneko bilobak dituenek, Elenak uste du lanposturen bat bilatu beharko duela: «Zahartuta nago, aurki senarrak bere ondora deituko nau eta atsedetik hartzeko aukerarik izan gabe joango naiz». Gainera, joan den urtarrilaren 1az geroztik lege berri bat jarri dute abian Moldavian: horren arabera, pentsiodunek erabaki beharko dute lan egiten duten ala pentsioa kobratzen duten, biak aldi berean egitea legez kontrako bihurtu dute-eta.

KAMERA GELDOAN HILTZEN

Erdibideko egoera batean dago Oleg, sei seme eta bi alaben aita. Zaharrena joan zen etxetik bere bizitza egitera, baina gainerakoak etxean ditu oraindik. Esnea ekoizteko asmoarekin landetxe bat jarri zuen abian, baina aurre-egitea asko kostatzen ari zaio: «Errumaniako esnearen lehiak itota nauka. Bederatzi behi izatera iritsi naiz, baina orain lau baino ez ditut. Gainera, Estatuak esan dit etxean telebista, hozkailua eta komun osoa ditudanez, nire negozioa garatzeko laguntzarik ez dudala merezi».

Ulgarri egiten da nekazariak herrialdeko bizitza politikoan esku hartzeko joerarik ez izatea. Urrutiei geratzen zaie. Elenaren anaiak Errusian egiten du lan eta haren semea, berriz, Errumania-ra joan zen, baina, etxean baino okerrago bizi zenez, itzuli egin zen, Elenaren semeek egin zuten moduan. Oleg behin baino gehiagotan joan da Errusiara eraikuntzan lan egitera, eta orduan pilatu zuen diruarekin sortu zuen landetxea. Bizirik irautea beste helbururik ez dute eremu horietako moldaviarrek.

Gutxi dute etorkizuneari Moldaviak aurrera egingo duenik. Sistema sozialista joan egin zen, hirietatik zein nekazari eremuetatik. Kapitalismoaren aurpegirik okerrera iritsi zaie: bakoitzak bereari eusten dio, Estatuaren aldetik inolako laguntzarik jaso gabe. Moldavia kame- ra geldoan hiltzen ari da: gazteek bertatik alde egiten dute eta zaharrek oso baldintza gogorretan pasatzen dituzte azken urteak.



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Intuizioa saiatzen

Urte berri bati eman diogu ongi etorria. Gure kulturan Jesus jaio zen egunetik zenbatzen ditugu urteak egutegian, eta gertakari hartatik 2.016

urte pasa dira jada. Hala ere, gizakia-
ren azterna munduan askoz ere lehena-
gotik ageri da; baita, gizakia-
rekin batera, inguratzen gaituzten tramankulu,
aurkikuntza eta asmakizun ezberdine-
na ere. Gizarteek garapen eta bilakaera
handia izan dute; bizitza ez da sortu ze-
neko garai hartan bezalakoa. Aldaketa
asko pentsamendua garatzearen ondo-
rioz etorri dira, eta horrek garunaren bi-
lakaera bera ere suposatzen du. Esperien-
tziak ekarritako ezagutza eta gizakiaren
jakiteko grina batuta, pentsamendua-
ren bilakaera heldu zen. Geroztik, giza-
kiaren ezaugarria izan da pentsatzeko
gaitasuna, animaliengandik ezberdin-
tzen gaituen ezaugarrietako bat, gaur
egungo gizarteetan aintzat hartutakoa.

XVII. mendean filosofia zientziazatik
banandu zen eta gaur egungo “zientzia”
kontzeptua jaio zen, gertakari objektibo
eta behagarrietatik abiatuta sortzen
den ezagutza arrazionala, egia bakartzat
kontsideratzen dena. Horretarako me-
todo zientifikoaz baliatuta, arazoa gain-
ditzeko hipotesi bat eraikitzen dugu eta
hipotesi hori egiaztatzen saiatzen gara
abanikoan agertzen diren aukera guz-
tiak aztertuz. Argi dago bide hori, eza-
gutza lortzeko eraginkorra izan arren,
ez dela erabakiak hartzeko biderik labur
eta samurrena, gehienetan urteetako
saiaakerak behar baititu; gure espezieak,
ordea, badu eguneroko bizitzan zenbait
aukeraren artean arrakastarekin emai-
tza egokia topatzeko erabiltzen duen bi-
de inkontzientea ere, intuizioa alegia.

**Intuizioa erabiltzen dugunean, garu-
nak jatorri ezezagunetik datorren
ideia bat oparituko baligu bezala sen-
titzen dugu.** Pentsamenduak lur azpi-
tik egiten duen lana da intuizioa, inkon-
tzienteki prozesatzen dugun
informazioa, alegia. Intuizioa emozioe-
kin erlazionatzen dugu; hori dela eta,
ideia pentsatu beharrean sentitu dugun
sentsazioa daukagu. “Intuizio” hitzak
berak ere etimologikoki esanahia bar-

neratuta dakarkigu latinetik: *intueri*,
“barnera begiratu”. Pentsamendu logi-
ko-arrazionalak, ordea, esan bezala,
denbora luzeagoa eskatzen du, azterke-
tetarako egiten duguna adibidez, ikas-
tea.

Gerd Gigerenzer arrisku eta erabaki
hartze prozesuetan psikologo adituak,
intuizioari buruzko ikerketak gauzatu
ditu azkeneko urteetan emaitza bene-
tan interesgarri eta esanguratsuak
emanez. Bere aburuz, intuizioa aukera
arrazionala erabiltzen duten eredu eta
zenbait programa estatistiko baino ho-
beagoa izan daiteke. Aurrera eram-
dako ikerketetan erakutsi dute giza-
kiok zenbait erabaki hartzeko eskura
daukagun informazioaren zati bat alde
batera uzten dugula, ez dugula infor-
mazio guztia erabiltzen, laborategie-
tan egiten dugun bezala. Bestela, naha-
siegia izango litzake erabakia
hartzearen erronka. Horrekin ez du
esan nahi aintzakotzat hartzen ez du-
gun informazioa ez dugula ezagutzen,
baizik eta ez dugula kontzientziara
ekartzen eta horrela erabakia hartzera

eramaten gaituen bidea, aipatu lez, la-
burragoa bihurtzen da.

**Beraz, intuizioa zentzumenen espe-
rientziak emandako jakituria da, eta
hori baztertu ezin dugun faktua da.**

Pertsonok ez gara metalezko makinak,
gure inguruak ematen digun informa-
zioa barneratzen dugu eta bertatik
ikasten joaten gara, bizirik manten-
tzen laguntzen gaituen jakituria bar-
neratuz, gure bizitza aurrera doan hei-
nean; egunez egun, urtez urte.
“Intuizioa” izena ematen diogun hori,
esperientziek gure gorputzean eta
pentsamenduan utzitako aztarnak di-
ra; ezagutza horiek pentsamendu arra-
zionalari ezberdin zaion bidea hartzen
dute eta gehien behar ditugunean ate-
ratzen dira. Pentsamendu logikoa tre-
batu daitekeen bezala, intuizioarekin
ere berdina egin daiteke. Horretarako,
ordea, gure inguruan arreta jarri be-
harko dugu eta bost zentzumenekin
mundua behatu, ukitu, dastatu, pen-
tsatu, kontzienteki; gerora, inkon-
tzienteki, uzta jaso dezagun. •



Gehien behar dugunean gidatzen gaitu intuizioak.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Ez delako goiz, ez dadila beranduegi izan

Urtero lege, jendetza batuko da Bilbon; eta aurtun ere Baionan. Hunkigarria izango da, presoekiko ditugun sentimendu eta obligazioek zafratuko dituzte milaka eta milaka aberkideen bihotzak, barruraino sartzen zaigun labankada garden batek erakutsiko dizkigu, beste behin ere, gure barne-erresuman irekia dugun zauria. Ederra da presoak, eta haien senide eta lagunak, maitatzean eta defendatzean erakusten den indarra, konstantzia eta iraun hori. Ederra da etortzea. Ez, ordea, etorri beharra. Tristeia ere badelako, beste urte batez, konpontzeke eta konponbide aurreikuspen argirik gabe jarraitzea psikologia kolektiboa hainbeste mintzen duen auziak, herri honek hainbeste desira eta merezi dituen bakea eta elkarbizitza ezinezko egiten dituen presoan egoerak zuzentzeke segitzea.

Bilbo eta Baionako kaleak etorbide bihurtu behar ditugu. Azkar eta osasuntsu preso guztien etxeratzea gure ekinbidearen funtsezko funts egin eta daukagun onena eta ditugun onenak hartara jarri behar ditugu lanean. Presoen egoera gure min eta ezinen poligrafo dugulako, bizi dugun aro politiko demontrearen zailtasun eta kontraesanen erakusle.

Ustez denborak ekarriko zituen erantzun asko gure kontzientziak mailukatzen dituzten galdera ikur ditugu oraindik, ez dagoelako ziur esaterik presoan auziak urgentziaz eta zentzu onaren bidetik hobera nola egingo duen. Besteak beste, politika ez delako sekula ziurtasun borobil baten bueltan mugitzen, presoekin darabilten politikak aspaldi lausotu zituelako justiziaren eta mendekuaren arteko mugak. Ziegetako giltza itsasoan betiko hondoratu dutela sinestara nahi digute, ateratzeko zirrikituak hain estuak direla horietatik pasatzeko modu bakarra belaunikatuta edo hankak aurretik zerraldo egitea dela. Kalkulu hotz eta madarikatu baten politika da: zenbat eta preso gehiago denbora luzeagoan eta egoera okerragoan, orduan eta harritzar handiagoak Euskal Herriaren bizkar-zorroan, pasibo handiagoak gure herria dagoen tokitik merezi duen tokira eramateko politikarako. Itxaropena zapuztuz, larrimina hedatzea dutelako helburu, konfiantza propioak hustea, borondate kolektiboa likidatzea.

Euskal presoan kaleratzeak bideratzen hastea, urgetea eta zentrala da. Zaila baita, bestela, hankamotza erabat, elkarbizitza eta normalizazio politiko arrazional minimo bat lortzea. Pertseberantzia behar da, gaia ezker abertzalearen bihotz organizatiboaren eguneroko taupada bihurtzea, erabakiak hartzeko eta eraginkor bihurtzeko behar diren bitartekoak eta bost hornitzea. Hartzeke dauden erabakien aurrean, betikoek betiko «nahikotasun eza» adieraziko dute; beste batzuek, zintzotasunez, ez direla goiz hartu eta ez dadila beranduegi izan aipatuko dute. Baina, denok, orain eta nonahi gaudenok, moldeak aldatuz, ekipo onenarekin joko-zelaian eta jokoa partituz, jendea batuz, ekin behar diogu jardunari. Presoek eurek, banan banakoa eta mailakatua behar duen bide kolektiboan hartu diren eta hartzeko dauden erabakietan ziurtasunez aurrera. Eta haiekin bat, haiekin zintzo eta dagoena aitortuz (bere argi eta itzal, zailtasun eta au-

Presoen gaia bihotz organizatiboaren eguneroko taupada bihurtu behar da, erabakiak hartu eta eraginkor bihurtzeko beharrezko bitartekoak eta bost hornitu, dugun onenaz eta ditugun onenez

keren leihoen zirrikitu guztiekin), denoi dagokigu, pertseberantziarekin batera, horizonte berri hori sakontzea, zehatz eta gauzagarriak diren urratsekin bidea ibiltzea.

Ahalegin horretan, hitz eta jokabide gerlariak darabil-tzatenak izango ditugu aurrez aurre. Beren erara, diren moduan, beren zelai eta joko arauak inposatu asmoz. Amorrarazi egingo gaituzte, bularrean amorru hori biltzeko nahiko lan izango dugu, baina lezioa ondo ikasita dugu: gure herriarekin bat eta munduaren aurrean, eskubideak, justizia eta gizatasuna palanka hartuta, estilo berri batekin aurrera egitea dagokigula badakigu. Bai, asmatuko dugu. Eta goiari eutsiko diogu, horixe baietz! Bai baitakigu hura ez dela eroriko. Badakigulako presoen-tzat beste etorkizun bat iragartzen duten hodeiak metatzen ari direla gure herriko zeru gainetan. Eta inork ez duela eragotziko, euria! •

ESPETXEA ETA SORMENA

Sorkuntza presoarentzako, ihesbide ez ezik, ihesaldi ere badenean

📁 JENDARTEA / Aimar Etxeberria Korta

Eskuetan margoak hartzen dotazienien espetxetik ihes egiten dot. Eta kartzelari aurre egiteko margoak leiho bihurtu ziren, barrote bako leihoak». Oier Andueza (Durango, 1975) euskal preso politikoaren hitzak dira, Hernaniko Biteri aretoan zuen erakusketari ongi etorria ematen ziotenak. Hitzok modu zorrotzean erantzuten diote artikulu honen xedeari: zertarako sortzen du presoak? Zer ekarpen egiten dio sormen ariketak presoari?

Ziegetara begira jarri gara, beraz, artikulu hau osatzeko orduan. Gaur arratsaldean Bilbo eta Baionako kaleak beteko dituzten mobilizazioen aitzakiapean, euskal preso en egunerokoan alderdi garrantzitsua den sormenari heldu diogu, bere adiera eta dimentsio guztietan. Horretarako, espetxea zuzenean ezagutu edo ezagutzen duten pertsonekin jarri gara kontaktuan, euren esperientziaren berri lehen pertsonan eman dezaten. Horrek esan nahi du egun espetxean diren kideen esperientziak ere irakurtzeko aukera izango dela datozen lehenetan. Zentzu horretan, doakiela eskerrik beroena hauen senideei, GAUR8 eta presoaren arteko zubi-lana egiteagatik.

Esan dugu sormenari bere adiera zabalenean heldu diogula. Horren espresio bat baino ez da komikigintzarena, eta horretan dihardu Mikel Orbegozok (Donostia, 1979). «Preso nago I» eta «Preso nago II» komiki liburuen egilea bera, «Ilargiraino» izenburua jarri dion bere hirugarren lana argitaratu berri du. Espetxean marraztu zuen bere lehenengo bineta, «kide bati urtebetetze opari bezala». Egin zuenarekin bere burua harrituta utzi eta gauzak kontatzeko birtarteko berri bat zuela jabetu zen: «Aurkikuntza bat izan zen; horrela hasi nintzen».

Orbegozoren esanetan, preso eta espetxea harremantzeko orduan bi faktore hartu behar dira kontuan: «Daukagun denbora pila, batetik, eta espetxe sistemari aurre egiteko ditugun baliabideak, bestetik». Sorkuntza garatzearen bidez presoak denboraren kontrola hartzen duela aldarrikatu du, eta

Hitzak miatuak eta ideiak jarraituak diren eremuan, sormena, ihesbide ez ezik, ihesaldi ere bihurtzen da presoaren egunerokotasunean. Gatibutasunari aurre egiteko edo buruari ziegako lau paraten artetik ihes egiten laguntzeko, hamaika dira preso sorkuntza garatzera eramaten duten arrazoiak.



«Preso nago I» komiki liburuaren baitan argitaratutako Mikel Orbegozoren binetak. ATARAMIÑE

gozamenerako edo espetxean bizi duten egoera salatzeke tresna bilakatzen dela azpimarratu du: «Marraztea boterea hartzeko modu bat da».

Aipatu dugu aurrez denboraren faktorea. Sormena garatzeko erraztasunak ematen dituen faktorea dela pentsa dezakegun arren, dio Orbegozok denbora hori «zailtasunez beteta» egon ohi dela: «Egunerokoan ikusi edo bizitzen ditugun kontuek, gure aurka hartzen dituzten neurriek, sortzen diren tentsio unek geure buruak kezka betetzera eramaten gaituzte; beti ez da erraza sosegua topatzea». Baina zailtasunak bertute egiten ikasi du donostiarrak, eta bizi dituen une latzak txiste bilakatzen ahalegintzen da, «barreak eragitearekin batera hemen ikusten ditudanak salatzeke». Bestalde, espetxeak sarri zailtasun teknikoaren aurrean jartzen du komikilaria: «Batuetan beharrezko materialen aldetik, eta, besteetan, landu nahiko nituzkeen gaien inguruko informazio faltagatik, hemen ez baitago Internetik».

Marraztean, ordea, zail egiten zaio espetxea ez den kontuez egitea. «Kaleko inork ikusi ezin duena ikusten dugu; beraz, gure ardura da hemen bizi duguna, pairatzen ditugun bidegabekeriak, kontatzea», adierazi du Orbegozok. Hala ere, presoaren ametsak espetxea ez den edonon kokatuta daudela gaineratu du: «Nire kasuan, kalea, etxea, taberna edo mendia, espetxea ez den edozer marrazten dudanean ez da soilik marrazki bat; hemen baino han egotea nahiago nukeen leku bat da».

IBON MUÑO, «AMETSEN TXOKOAN»

Ibon Muñoaren (Eibar, 1958) kasuan, espetxean sartzeak eragin handia izan zuen paperari eta boligrafoari berriro heltzeko orduan. Gaztaroan piztu zitzaion idazteko grina, baina bizitzaren egoerek afizioa alde batera uztera behartu zuten. Espetxean, ordea, denborarekin egin du topo, afizioa berreskuratzea ahalbidetu dion denborarekin: «Ordu asko igarotzen ditugu ziegan sartuta, eta idazteak burua okupatua izatea ahalbidetzen dit».

Denbora ez ezik, espazioa ere eskaini dio espetxeak idazterako or-

duan, baliabide asko ematen dizkiolako: hormak, bisitak, lagune zuzendutako eskutitzak... «Kartzela barruan edozein une eta euskarri da egokia idazketarako», aitortu du. Sormena garatzea erabakitzen duten preso gehienek bezala, Muñozari ere kosta egiten zaio espetxea ez den kontuez idaztea, «bertan bizipen asko daudelako». Baina ororen gainetik, burua okupatua izatea du xede preso eibartarrak, baita euskarari bere ekarpen txikia egitea ere. Berak, ordea, argi dauka non dagoen eta zer egeratan aurkitzen den, horregatik argitaratu zuen lehen liburuari izenburu argigarria jarri zion: «Ametsen txokoan bizi naiz».

Ekhiñe Eizagirre, POESIAN

Oso gaztetatik du idazteko zaletasuna Ekhiñe Eizagirre (Zarautz, 1984) preso politikoak. Txikitatik ekin zion egunerokoak, ipuinak, bertsoak, abestiak eta abarrak idazteari: «Idaztea maite nuen». 14 bat urterekin, baina, olerkigintzari heldu zion, eta orduz geroztik asko idatzi izan du. Gaur egun, berriz, eta oso boladaka bada ere, idazten jarraitzen du, «batez ere poesia».

Espetxeko egunerokotasunaren baitan denbora asko eskaintzen dio Eizagirrek sormena garatzeari, nahiz eta uste duen espetxeak ez

Bota harresia

Bota harresia
hautsi aulkiak
lehertu hormak
tirokatu kristalak
luza eskua
gerturatu gorputzak
estutu ipurmasailak
nahastu ezpainak
urratu arropak
zabaldu hankak
egin irrintzi
bota harresiak.
Bota beltzak
arau hertsia
kristal atzeko begiak
ezleku itxiak.
Jaso ukabila
ireki begiak
gehitu indarrak
apurtu distantziak
egin garrasi

AaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaMNISTIA!

Ekhiñe Eizagirre

duela zertan preso horretara eraman. Kide ugari ezagutu ditu, eta dio, modu batera edo bestera, guztiek dutela sormenarekiko lotura: «Batzuek gutunak idazten jorratuko dute haien sormena; beste batzuek, aldiz, eskulanetan edo margotzen». Baina gaineratu du egoera ezberdina dela preso dagoen espetxearen arabera. Hala ere, nabarmendu du baliabide eskasia dagoen kasuetan irudimenak bere papera jokatzeko duela eta inprobisazioaren bidetik emaitza «imajinaezinak» lortzen direla: «Egur-puska edo ahuakate hezurrekin egindako zintzilikarioak, kartoi puskekin txabola atontzeko egindako apalak, eta abar».

Sormenak, Eizagirreri, modu ezberdinetan eragiten dio. Lagundu diezaioke amorrua eta emozioak kanporatzen, lasaitzen edo denboraren astuna arintzen, «baita lau pareta artetik ihes egiten ere. Plazera ematen dit –jarraitu du– ki-deen sormen lanak ikusteak eta nireak haiekin konpartitzea gozamen handia da». Zail egiten zaio espetxea ez den kontuez idaztea –espetxean izanik espetxeaz idaztean bertako errealitatea islatu eta salatu nahi izaten dute–, baina horrek, modu berean, lagundu ere egiten diola adierazi du: «Sabel barruko garratza kan-

poratzen laguntzen dit, horrek hustuko naudelakoan».

JON TAPIAREN AUTODEFENTSA

Oroitzapenetan oinarrituta hitz egiten du Jon Tapia zizurkildarrak. 2005etik da aske –22 urte espetxean igaro ostean–, eta 1999an argitaratu zuen «Gartzelatik» poema eta bertso bilduma. Beste askoren gisan, kartzelako kontua du idaztearena, nahiz aurretik bertso-papera edo olerkiak bezalako espresioak oso gustuko zituen.

Kartzelak eraman zuen Tapia sormena garatzera: «Berehala ohartu nintzen zein den espetxe-sistemaren funtzioa euskal preso politikoei: errepresio itogarrian eta mendeku jarreraren oinarrituta dagoela eta, nola ez, gu pertsona bezala deuseztatzeko tresna dela». Hori horrela, halabeharrez, autodefentsa mekanismo bezala ekin zion idazteari. Aipatu egoeran zail egiten zitzaion, tarteka bazen ere, goibelaldiaren zulo beltzean ez murgiltzea: «Beraz, zulo horretatik ateratzeko, autodefentsa-sistemari heldu behar zio, halabeharrez. Esaten nuen –jarraitu du–: ‘Gorputza kartzelan, baina nire go-goa eta pentsamendua Euskal Herrian’. Animo horrekin aurrera begira jarri eta gogoz ematen nion idazteari».



«Ataramiñe'15» urtekariaren eta Mikel Orbegozoren «Ilargiraino» lanaren aurkezpen argazkia. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ATARAMIÑE, PRESOEN
SORMEN LANEN BOZGORAILU

Ataramiñe euskal preso politikoen artean literatura sustatu eta haien lanak zabaltzeaz arduratzen den elkarte 2002. urtean jaio zen. Bi pertsonen arteko koordinazio lan baten ondorioz egiten du aurrera, baina ezin da ulertu Ataramiñeren jarduna presoek, euren senideek eta lagunek edota herrietako elkartasun sareek egiten duten ekarpenik gabe. «Guztion artean egiten dugu lan, lan kolektiboa da; preso mundu hau ez dago bestela ulertzerik», diote koordinatzaileek.

Batez ere, presoek –eta batzuetan iheslari eta deportatuek– eginiko lanez osatutako urtekaria argitaratzeaz arduratzen da elkarte: bertsoak, poesia, hausnarketak, kontakizunak, margolanak... Baina euren asmoa ez da preso sorkuntza lanak eurek argitaratzea: «Ez dugu ghetto bat eratu nahi preso inguruan. Euskal presoek han eta hemen argitaratutako liburuak kaleratzen dira urtero, Ataramiñez aparte». Diote, euren helburua plataforma bat eskaintzea dela, presoek bururatzen zaien hori argitaratzeko. Era berean, hitzaldiak edo errezitaldiak ere antolatzen dituzte: «Herrietako preso aldeko ekimenak izan ohi dira».

Era berean, pentsatzen zuen hori adierazteko bitartekoa zuen idaztearen artea Tapiak: «Nire militante kontzientzia, nire herrimina eta nire ametsak ez zeuzkatela preso, alegia». Eta gainerakoen gisara, zertaz idatziko eta kartzelaz, «batez ere lagun-minen kategorian dituzunekin. Zoragarria izaten zen horietako bateren baten gutunak jasotzea». Bestalde, Estatu frantsesean preso zituzten hainbat kiderekin ere harreman zuzena zuen zizurkildarrak. Horrela ezagutu zuen egungo bere bikotekidea; biak preso zirela gutun bidez ezagutu zuten elkar.

Kartzelatik irten ostean, ordea, ez du idazten jarraitu. «Nire burua ez daukat idazleen kategorian, ezta pentsatu ere! Horretarako dohain bereziak behar dira izan, eta nik gabeziak baino ez daukat alor horretan», azaldu du. Ez idazteagatik, preso diren kideei ere ez diela idazten aitortu du, atsekabez eta amorruez. Baina barruan dauden guztiak gogoan dituela aldarrikatu du: «...eta gaurko gau ilunak, otoi dagio ilargiari; Egun Berria etor bekion, Gure Herri Zaharrari».

MIKEL ANTZA, HITZ EGITEKO IDATZI

Gainerako sortzaile gehienak bezala, oso gaztetatik izan du Mikel Antzak (Donostia, 1961) ere idazteko grina: «Unibertsitatera joan ordez idazle izan nahi nuela esan nion aitari. Aholkatu zidan hobe nuela karrera bat hastea, idazteari utzi gabe, hartuko nuela erabakia aurrerago». Baina bizitzaren joan-etorriek moztu zioten idazketarekin zuen harremana: «Une batean ezinezkoa egin zitzaidan nire sorkuntzarako grina eta Euskal Herriaren askapenaren aldeko borroka bateratzea». Espetxeak, ordea, berriro jarri du harremanetan idazketarekin: «Atxilotuz geroztik, isolamenduan nindutela, idaztea bizirik irauteko borroka-tresna bihurtu zitzaidan».

Idaztea espresio bide bat da berarentzat, mundua ikusten duen modua azaltzeko eta besteei erakusteko aukera ematen diona. «Idaztea hitz egiteko modu bat da niretzat», adierazi du. Espetxean den heinean, gainera, askatasun gabezia den «eraso jarraitutik» aldentzeko balio diola gaineratu du: «Lau pareta artean itxita egotea



izugarria da. Gizakia ez dago horretara egina». Hori hala, dio egoera horretan dagoen presoarentzako sorkuntza ihesbide ez ezik, ihesaldi ere badela.

«Kartzela ez da ezertarako espazio egokia», dio, «norberak sortu behar ditu espazio egokiak idazte-

Idazle gisa ibilbide oparoa egin du Mikel Antzak, bai espetxera sartu aurretik baita espetxean dela ere. Mikel Ormazabalek ere beti izan ditu gertu papera eta boligrafoa. Espetxean zela «Hemen naiz, ez gelditzeko baina» liburua idatzi zuen. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ko». Agian, despistatzerako orduan distrakzio gutxiago daudela onartu du; baina, bestalde, kartzelari aurre egiteak energia handia eskatzen duela azpimarratu du: «Gainera, nik beti uste izan dut sormen artistikoa talde giro batean, jendarte giro batean, herri giro

batean egiten den zerbait dela; eta hori da kartzelak ekiditen duena».

Lan ugariren egilea da, baina ez du bere lanen arteko sailkapenik egitea atsegin. «Beraz, ez dut ezberdintasunik egiten kartzelan idatzitakoaren eta atxilotu aurreko idazlanen artean. Gainera, ez naiz hierarkia eta sailkapenak egitearen batere zale».

MARKEL ORMAZABAL ETA DENBORA

Markel Ormazabalek (Donostia, 1982) bazuen esperientziarik idazketarekin espetxeratua izan aurretik. Dio, eskolak bezain beste, militantzia politikoak trebatu duela: «Jarduera honi lotutako idazketan aritu izan naiz bereziki, baina baita zutabegintzan ere». Espetxean zeneko garaiak oroituz, adierazi du presoak sormena behar duela garatzen duen nekeari aurre egiteko: «Mendean hartzeko dago egina kartzela; eta horretarako, lehenik, preso harturiko pertsona nekatu egin behar da, akitu, gorputz otzan eta ideia propiorik gabeko bihurtzeraino».

Dio kartzelak bere helburuak lortzeko diziplina eta denbora jakin bat jarriko dituela, «eta hartan datza presoaren borroka behinena: nola lortu norberaren denboraren gaineko erabaki ahalmena? Sormenaren bidez, denbora eta autonomia propioa irabazi ditzake presoak». Denbora hori, gainera, inolako erraztasunik emango ez dizun espazio batean irabazi behar dela gaineratu du: «Bitartekoak mugatuak dira oso: orri zuria maiz luxuzko produktua da, boligrafoak ere hainbat isolamendu modulutan erditik ebakiak dira, miaketen jomuga dira hizkiak eta orrialde zirriborratuak...».

Baina kartzelak adierazpenari mugak ezartzen dizkion arren, azpimarratu du Ormazabalek askotariko lengoaiak erabiliz eman daitekeela aditzera gaitubtzaren esperientzia. «Kartzelako sorkuntzaren bitartez presoak ahotsa gorpuzten du, eta gizarteak nahiz espetxeak ukatu dion hitza eta nortasuna aldarrikatu», adierazi du. Hori hala, espetxean gaitubtzari aurre egiteko idazten dela nabarmendu du, «eta horixe da sorkuntza lanak itzalpean dagoe-

nari egiten dion ekarpen balio-tsua».

JON GAZTELUMENDI: EGOERA LEUNDUZ
Jon Gaztelumendik (Errenteria, 1961) perspektiba luzez begiratzen dio espetxean igaro zuen denborari eta urte horietan idazteko izan zuen ohiturari. Gaztetan idazlan batzuk egin arren, dio espetxean sartzearekin batera hasi zitzaiola idaztearen errotarria mugitzen. Denbora zuen, eta denbora hori antolatze beharra, kartzela bakoitzeko bizi-baldintzek uzten duten modura: «Eta sormenak hor aurkitzen du bere lekua; jartzea da, hari batetik tiraka hasi eta horretan jardutea».

Sormenak, ordea, denbora eskatzen du, eta espetxeak eman zion Gaztelumendiri kanpoan ez zuen denbora hori. Bestalde, sormena garatzeko, espetxeak «atmosfera berezi bat» eskaintzen duela gaineratu du: «Ez da soilik aparteko mundu surrealista bat; hitz egiteko joko asko emango luke». Ekite hori, gainera, alde guztietara lagungarri izan zuela azpimarratu du: «Sormen prozesuak atal asko ditu, eta ariketa horietan guztietan murgiltzean abstrakzio egoera batean sartzen zara; kartzelan zaude baina kartzelak ez zaitu».

Bere espetxeko igaroaz oroitzen duenaren arabera, kartzelan bizitzea oso agresiboa da. Zentzu horretan, arlo psikologikoez gutxi hitz egiten dela nabarmendu du, eta, horregatik, kartzelan kartzelaz idaztea –egoera mingarrienetatik gertaera komikoetara– oso lagungarria dela dio. Espetxetik ateraz geroztik jarraitu du boligrafoa hartu eta orri zuriaren aurrean jartzen, baina beste era bateko idazlanak osatuz.

ITZIAR PLAZA: ESNA AMETSETAN
Sormena, idaztea ez ezik, margo-tzea ere bada, eta horretan dihardu Itziar Plazak (Bilbo, 1982). Amarengandik jasotako dohaina dela dio berak, preso izanik gehiago garatzeko aukera izan duena. Garatu, espetxeko pareten artean bizirik irauteko garatzen duela dio, espetxeak egunero erakusten dion paisaia grisari aurre egiteko: «Egunero panoramika bera ikusteak eta mugaz josita egoteak ondorio kaltegarriak eragiten dizkio presoari».

Bi ahoko arma izan daiteke denbora faktorea presoarentzat: beronen kontrola har dezake edo bere besoetara eror daiteke. «Mendean hartzeko dago egina kartzela», dio Mikel Ormazabalek

Irudimenak preso ziegako lau pareten artean kanpora eramateko gaitasuna du. «Kartzelan zaude, baina kartzelak ez zaitu», sentitzen zuen Jon Gaztelumendik

Hiru aste egin ditu Oier Andueza preso durangarraren marrazkien erakusketak Hernaniko Biteri kultur etxean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Eguneroko paisaia grisei aurre egiteko margotzen du, beraz, Plazak. Eta aurre, ametsekin egin dio aurre egunerokotasun monotonoari: «Espetxeak lapurtzen dizkigun egoera guztiei aurre egiteko amets egin behar dugu. Lehen ere egiten nuen amets, noski, lo egiten nuen. Baina espetxean ametsak esna nagoenean datozkit bata bestearen atzetik, eta eskerrak!». Amets egiteko aukera emateaz gain, margotzeak barrutik bizirik dagoela adierazten dio Plazari: «Espetxeak, beste hainbat helbururekin batera, gizatasuna suntsitzea bilatzen du. Horren aurrean, gizaki egiten gaituzten emozioak eta sentimenduak adieraztea funtsezkoa da».

Ametsetan egin, bizirik sentitu eta... espetxetik irteteko aukera eman. Marrazketak ematen dion beste irtenbideetako bat, «irudimenak limiterik ez baitu». Espetxetik irten ez soilik fisikoki, baita mentalki ere, marrazkien bitartez barruan giltzapeturik dituen sentimenduak kanpora ditzakeelako, «gainetik zama bat kenduko banu bezala. Marraztea komunikatzeko bitarteko bat da –jarraitu du–. Ez du zertan besteekin komunikatzeko izan behar, bereziki norbere buruarekin komunikatzea garrantzitsuagoa dela esango nuke».

OIER ANDUEZA, ESPETXETIK IHES
Espetxeratua izatearekin batera hasi zen Oier Andueza (Durango, 1975) margoekin esperimentatzen: «Geroztik, etengabe aritu naiz pintura krema margoa hartzetan hartu eta paperak zikitzen». Modu horretan, esan daiteke espetxeak eraman zuela Andueza sormena garatzera. Dio bertako egunerokotasuna oso mugatua eta monotonoa dela, «eta bertatik ateratzeko beharra izaten dugu. Nik –jarraitu du– orduak ematen ditut margotzen, normalean bazkalostean hasi eta

arratsaldean zehar. Espetxetik ihes egiteko behar horrek irudimena garatzera narama, beraz, baita sormena ere».

Baina hainbat oztoporekin aurkitzen da durangarra: «Batzuetan materialak sartzeko arazoak izaten ditut, Teixeiron adibidez. Aranjuezen ere mihise txikiak soilik sartu ahal nituen». Margotzeko orduan begiradei erreparatzen die batez ere: «Ehun paisaiek baino askoz gehiago esaten didate». Espresioak bilatzen ditu, eta inoiz liburu edo argazki batean zerbait iradoki dion begiradaren bat ikusiz gero hura paperera eramaten ahalegintzen da.


Orain gutxi arte erakusketa bat izan du Hernaniko Biteri kultur etxean. «Ez nuen sekula pentsatu erakusketa bat izatera irits nitekeenik. Niri zerbait esaten didaten irudiak jendearekin konpartitzeko aukera eman dit, nire ihesaldiek eraman nauten leku desberdinak jendearekin konpartitzeko», dio erakusketaren harira. Era berean, jende askoren iritziak jasotzeko aukera izan du, modu batera edo beste- ra helarazi dizkietenak: «Oso eskertua nago horregatik».





Dani
Fano

iRRITZIA:



BAI&BY-REN OSPAKIZUNA

Euskarazko sistema adimenduna garatzen ari da, hezkuntza eta jendarte hobetzeko

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Duela 25 urte, oraindik ordenagailuek solas egiten ez zutenean, euskara ikasteko lehenbiziko softwarea sortu zuen euskaltzale talde batek. Gaur egun, euskara eta ingelesa barneratzeko sistema adimendun bakarra, Bai&by, garatzen dihardute. Krisiari aitzin egin eta fundazioaren proiektua burutu dutela ospatu dute besta batekin.

Goizeko hiruretan amaitu zutela kontatzen dute, Bilboko Alde Zaharrean kantuak kantatzen, trikitiaren eta albokaren laguntzarekin. Jai bat izan zen, «bizitza honetan gauzak ondo doazenean ospatu egin behar direlako». Hala azaldu digu En-

tzi Zubirik, 1991n, Ilari eta Artur anaiekin batera, Didaktiker sortu zuen lagunak. Izenak adierazten duen gisan, didaktika iker-tzea zen egitasmoaren xedea. Ikerketaren emaitza DDK System izeneko sistema adimenduna izan zen, baita euskara ikasteko lehenbiziko softwarea ere, Haberekin batera egina: Ikas-Txip. Geroxeago garapena inge-

lesa ikasteko moldatu zuten eta hala jaio zen EnglishExpert. Orain, organigrama zabal baten parte da Entzi Zubirik zuzentzen duen Didaktiker. Bai&by fundazioak barnebiltzen ditu Bai&by osoa eta bere sei adarrak: Estatua, Iruñea, Bilbo eta Areeta, Donostia, Gasteiz eta Didaktiker. 52 langile dira orotara. Bilbon bildu ziren 2015 bukaeran, krisiaren ondotik «suabe-suabe gorantz» hasi direla ospatzeko. Gainera, Bai&by fundazioa eratzeke proiektua ia burutua dago eta horrekin ere gustura daude.

AMETSA HARAGO JOAN DA
1998tik Bai&by-ren kanpaina guztien aurpegia izan den Santi Ugalde aktoreak gidatu zuen ekitaldia. Ondoan izan zituen Andoni Egaña eta Arrate Illaro bertsolariak, Fernando Goñi marrazkilaria (aurkezpenari lagundu zion bere marrazkiekin)

Bai&by fundazioaren inguruko hainbat lagun, Bilborock aretoko jaian brindisa egiten.
Dabid MARTINEZ | DIDAKTIKER



eta Andres Urrutia euskaltzainburua, bertzeak bertze. Ikasleak, enpresak, euskalduntze sektoreko kideak... Fundazioarekin lan egin duen jende ugari elkartu zen.

Entzi Zubirik pozik azaldu digu duela 25 urte zuten ametsa baino «askoz ere harago» joan dela proiektua. Horren erakusgarri izan zen jaia.

Adierazi duenez, ametsa harago joan da teknologia izugarri aldatu delako. Adibidez, azken proiektuan, Elhuyarrek aplikazio bat prestatu du euskara eta ingelesa linguistikoki etiketatzeko. Hala, edozein esapidetan ze hizkuntz elementu dauden jakin daiteke: ze aditz, ze denbora, ea erlatibozkoa den... «Iraultza izugarria da».

«Didaktiker sortzean hau ikusi izan bagenu, zientzia fikzioa zela pentsatuko genuen. Baina hori ez zaigu guri bakarrik gertatu. Hori gertatzen ari da. Dauden aurrerapen teknologikoak erabiltzen asmatzen badugu, hainbat arlotan eta ikaskuntzan zehazki aurrerapen itzelak egin ahalko ditugu. Izugarria da aurreratu dena eta aurreratzen ari garena», nabarmendu du.

BAKARKA IKASTEKO TRESNAK

Aipatu bezala, orain dela 25 urte sortu zen sistema adimenduna. «Sustatu genuenok euskalgintzan geunden, eskolak ematen eta didaktikan, eta kezka bat geneukan: zergatik hainbat ikaslek ez zuen ikasten? Helduen ikaskuntzan hizkuntzekin oso ohi-koa da hori, ez da euskararen bakarrik gertatzen. Hizkuntz eskolan jendea 3. mailara iristen da, baina 4. eta 5. mailetara oso gutxi. Diagnostiko bat geneukan: oinarri falta, ikasteko estrategia desegokia, blokeoak...», oroitu du Zubirik.

Orduan, IKAn ikasleak bakarka ikasteko tresnen bila hasi ziren. Liburu berezi batzuk egin zituzten, soluzioak amaieran zituztenak, ikasleak bere kabuz landu ahal izateko, partitura bat ikasten den moduan. Paperean, orduko formatuan, ikasleei ikasten irakasteko ahalegina egin zuten. 1987an, paraleloki, Ilari Zubirik informatikak laguntza



Goitik behera, Entzi Zubiri egitasmoa azaltzen; Arrate Illaro eta Andoni Egaña; eta albokari bat.

Dabid MARTINEZ | DIDAKTIKER

handia eman lezakeela pentsatu zuen. Hala jaio ziren, 1991n, Didaktiker eta Ikas-Txip. Hauen berezitasuna, beren sinpletasunean (orduan oraindik ordenagailuek ez zuten solas egiten), sistema aditu bat izatea zen, hau da, irakasle birtual bat.

«Didaktikerren oso teknologia aurreratua geneukan, produkturik onena, baina oso zaila zen merkaturatzea. Orduan, erabaki genuen produktua beharrean zerbitzua saltzea. Hala sortu genuen Bai&by». Hiru zentro ireki zituzten lehenbizi, Bilbo, Gasteiz eta Arrasaten, eta 2000n bertze hiru, Getxo, Iruñea eta Donostian. Konpetentzia handia egon zen (BlaBla&Company, WStreet, Opening...), krisia ere bai. Gainera, Opening-ek ikasle guztiak kanpoan utzi zituen eta horrek sektore osoa ukitu zuen, jendea beldurtu egin zen. «Baina gu indartuta atera ginen».

ONDASUN SOZIALA

«Teknologian izugarri inbertitu dugu: 2000tik hona sei milioi baino gehiago, didaktikaren ikerkuntza lehentasuntzat hartuta. 2003an Internetez ikasteko lehenengo softwarea geneukan euskaraz. Ikusi genuen sortuta geneukan teknologia hori berezia zela, aukera itzelak zituela eta ondasun horrek ez zuela esku pribatuetan egon behar; ondasun soziala izan behar zuen», segitu du Zubirik azaltzen.

Aukerak aztertu eta ondasuna babesteko erarik onena fundazioa zela erabaki zuten. 2007an jaio zen Bai&by fundazioa.

Baina fundazioa «herren» gelditzen zitzairen eta barrenera begiratu zuten. «Kontraesan guzti-ekin, fundazioa ez delako perfektua, hitzarmen kolektiboa egin genuen. 2013an, urte batzuetako prozesuaren ondotik, lankide guzti-ekin adostuta, garatu genuen. Bertan, langileek parte hartzeko tresnak daude, jarraipen batzorde bat, erabaki estrategikoak hor aztertzen dira, langileek ahotsa eta botoa edukitzeko eskubidea jasotzen da, onura batzuk (amatasun bajaran astebate gehiago, adibidez)...».

Errate baterako, gehienezko soldata txikiarenaren halako 2,5



izan daiteke. Soldatak arrazionalizatze eta eztabaidatzeko mekanismoak daude. Halako tresnak sortu dituzte desberdinak izateko baita barrura begira ere.

IRAULTZAK ETA JENDEA

Bai&by fundazioak 3 + 1 helburu ditu, eta +1 horixe da hitzarmen kolektiboa. Hiru xedeak honakoak dira: euskara eta euskal kultura bultzatzea; hezkuntza sistema adituak zabaltzea eta hezkuntza baliabideak sozializatzea, hezkuntza eskubidea errealitate izan dadin; eta garapen bidean dauden herriekiko elkartasuna.

«Gure ustez, hezkuntzak, baita hizkuntzak ere, gizartea eraldatzeko ahalmena dauka. Ondo dago gobernuak aldatzea, baina historian ikusten dugu hori egitea oso zaila dela. Iraultzak egiten dira, baina jendearen funtzionamendua ez da aldatzen. Bietan egin behar da lana, baina aldaketa sendoena barrutik hasita egiten da, behetik gora. Egin dugun planteamendua da, gure txikitasunean, gure inguruan, lankideekin, harremanetan, beste entitateekin... horretan eragi-

tea. Eta hor hezkuntzak eta sistema adituek ahalmen handia izan dezakete».

Hainbat proiektu sustatu dituzte orain arte. Adibidez, Seaskari lagundu diote, Garabide elkartearekin Bai&by plataforma kitxuara moldatzeko proiektua egin dute eta ingelesa euskaratik ikasteko programa garatu dute.

INGELESA EUSKARATIK IKASTEA

«Azken hau ibilbide handiko proiektua da. Frogatuta dago ingelesa euskaratik ikasteak euskara bera indartuko lukeela. Euskaldunok ohituta gaude gaztelaniaz edo behar den moduan eskuratzen teknologiak, hizkuntzak... Orduan, ez dakit bezero asko egingo ditugun, baina fundazioaren helburuekin bat dator, eta, gainera, gure ustez, oso tresna interesgarria izan daiteke gazteei begira», adierazi du Didaktikerren zuzendariak.

Sopelako Ander Deuna ikastolarekin eskuz esku ari dira lanean eta bertze ikastola eta gazte batzuengana zabaltzeko asmoa ere badute, euskaratik ingelesa eskura dezaten.

Bertze egitasmo bat Elhuyarrek eta BCBL zentroarekin egiten ari diren elkarlana da. Kognizioaren, burmuinaren eta hizkuntzaren ikerketarako diziplina arteko nazioarteko ikerketa-zentroa da BCBL, eta Donostian kokatu dago. LangMind da egitasmoaren izena. Euskararen eskurapena nola egiten den eta horretan sistema adituak zer zerikusi izan dezakeen aztertzen ari dira. Hego Euskal Herriko 50 bat ikaslek parte hartu dute. Egun osoko probak egin dituzte. Probak amaitzeaz daude. Gero emaitzak alderatu eta ondorioak aterako dituzte. «Oso itxaro-

Bai&by fundazioaren bestan parte hartu zuten hainbat pertsona, tartean giroa alaitu zuten musikariak.
Dabid MARTINEZ | DIDAKTIKER

Malgutasuna eta metodologia pertsonalizatua eskaintzen ditu sistemak, era dibertigarri eta dinamikoan, jarduera ugarirekin: jolasak, bideoak, ahoskera, lexikoa, idazlanak...

BCBL zentroarekin egitasmo batean lanean ari dira euskara nola eskuratzen den eta horretan sistema adituak zer zerikusi duen jakiteko. 50 ikaslek parte hartu dute

pentsu gaude. Oso egitasmo polita da. Aurkeztuko dizuegu emaitzak dauzkagunean».

Bai&by-n ikasleek programa-ekin ikasten ematen dute denborarik gehiena eta eskolak ere jasotzen dituzte «hegaldi librea» egiteko. Hegaldirik librea hizkuntz simulatzaile bat da, trebatzeko baliagarria. «Lurreratu egiten zara eta nahiz eta krak egin ez dago arazorik, abiadura mantsoztzen duzu, angelua egokitu...».

IRAKASLE BIRTUALA

Irakasle birtual bat dago ordenagailuan. Ikaslearen ezaugarriak antzematen ditu. Lehenengo bere epe ertain eta luzerako oroimena neurtzen du, hori baita hizkuntzak ikasteko balio duena. Eta asimilazio gaitasuna eta bertze hainbat parametro kontuan hartuz, estrategia bat diseinatzen du hezur-haragizko irakasle batek egiten duen bezalaxe. Ikaslea gidatzen du.

«Neurolinguistika oso argi frogatzen ari da enpirikoki aspaldi genekiena, alegia, informazioaren berreskurapena egin behar dela ikasteko», agertu du Zubirik. Adibidez, honako esaldia: «Ez dut uste etorriko denik». Didaktikerren zuzendariaren arabera, melodia bat bezala sentitu behar da ikasteko. Unitate bat izan behar du, akorde bat. Hala, «ez dut uste etorriko dela» entzutean tonua galtzen duela konturatuko gara. Gramatikak erraten digu ezezkoa dela eta beraz «-ik» amaiera behar duela, baina «ezin da hitz egin beti gramatikatik tiraka. Gauzak ikasi behar dira musika ikasten den bezala».

Irakasle birtualari esker, ez soilik ingelesarekin, euskararekin ere estatu mailan multina-zionalekin lehiatzen dabiltza. Euskarara iraultzen dute –ingelese ere bai, merkatuaren %70 baino gehiago baita oraindik teknologian egiten duten aurrerapen guztia.

Hainbat jendek eskatzen die frantsesa edo beste hizkuntzaren bat ikasteko aukera. Baina horrek inbertsio handia eskatzen du. Etorkizunean badute ideia gauza gehiago egiteko, bai- na pixkanaka-pixkanaka.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Jantziak

Auto barruan harrapatu nau 2016ak Europako Kultur Hiriburuan, aurrekoari bozinaka eta atzekoaren amorrua jasoz, leihoak eta ateak itxita, oihuka. Garbera merkataritza zentroaren atariko aparkalekuan autoa utzi nahi eta ezinean. Urduri nago eta irratia itzali dut.

Musikak ez dit argi erabakitzen uzten ze zirrikitutatik aurreratuko dudan pareko autoa nire atzekoari ni gainditzeko tarterik utzi gabe eta aldameneko Renault Clioaren leihotik gizon bat ikusi dut leihoari oihuka, kopilotuaren aulkian haur batek izu-laborriz begiratzen diola eta haizetako garbigailuek ezetz esaten dioten bitartean; ez duela aparkatuko, ez dela Toys R Us saltokira joango; aurten ere semeari Errege Magoek ez diotela gutunetan eskatutako auto telegidaturik ekarriko, eta betiko geratuko dela Garbera pareko aparkalekuan. Bizikidetzaz eta familiaz pentsatzen ari nintzela leku bat libratu da eta autoa bertan sartu dudanera-ko ahaztu egin zait zertaz pentsatzen ari nintzen ere. Euria ari du gure hiriburu postalezkoan eta autoak erabat zibilizatuki ari dira elkarri bozinaka. Lasai hartzea pentsatu dut, berokia janztea. Irratian 2015eko kultur eskaintzaz ari dira eta otu zait kultura horixe dela: euria ari duenean janzten dugun berokia, material eta kolore sorta konpartitu bat; eta nire meditazio sakonean murgilduta nengoela auto batetik emakume haserretu batek keinu are haserretuago bat egin dit, ea ateratzera noan edo ze demonio ari naizen hainbeste denboran berari esperantza faltsuak sortzen. Ezetz erantzun diodanerako beste auto bati errietan ari zen.

Presaka joan naiz sarrera nagusiraino. Oinezkook ez daukagu bozinarik baina une batez zalantza egin dut denda eta denda arteko jende olde presati hartara ausartu edo ez. Eta ohartzera-ko nire hankak ere ibili ero horretan sartuak ziren; eta mugikorra joka hasi zait; laguneren bat izango da «urteberrian» esateko edo «ge-

ratuko kafe bat?» edo batek daki zer, baina ez naiz ausartu eskuarekin ezkerreko poltsikoan Richter eskalan hamarren bat gradutan dardarka ari den mugikorra hartzera, kontzentratuegi noa Springfield eta Bershka eta H&M eta Forum eta Pull and Bear eta ume-autoak eta opariak eta kafetegiak eta supermerkatua eta poltsak eta oinetakoen lokarriak lotzera makurtu den mutikoa eta mugikorretik hizketan ari den emakumea eta denda batean ezkutatu naiz arnasa hartzeko.

Oinezkoen ibiliaren erritmo eta bolumena hartua du musikak. Zentzumenak piztuta dauzkat, begiak erne eta eskuak fin artile, pana, bakero, zeta eta gainontzekoak ukitu eta ukitu koadrodun alkandora bat esku artean nerabilela auto-ko burutazioak itzuli zaizkit; kultura ere horixe dela akaso, jostea eta bustitzea ere bai, eta nire ideia zaparradaren lausoan Txirritarekin akordatu naiz, eta bere bi alkandorekin,

koadrodunak ote ziren esku artean dudanaren moduan? Modatik pasatakoa moda bilakatzen da bat-batean berriro; alkandora esan nahi dut, Txirrita moda ote da edo ote zen?, kultura bai agian?, eta alkandora ez baina galtzak erosi ditut; ezkertiar antikapitalista antiinperialista honek auskalo nork auskalo non eta auskalo nola egindako galtzak erosi ditu nire kontraesanengatik baino nire kontra esango dituztenengatik kezkatuago.

Garai lausoak bizi ditugu: supermerkatuetan erosten ditugu gure liburu eta diskoak; makarroien, arrozen, letxugen eta haragiaren poltsa berean sartzen dugu kultura, agian janaria ere badelako kultura, edo kultura ere badelako janari.

Eta euripean aspaldiko hitz haiekin gogoratu naiz berriz ere. Baietz esan diot nire buruari, multinazionaltan erosi arren euskaltzalea naizela, eta ezkerrekoa, eta antikapitalista, egiten dudanak egiten nauen arren, hitz handien gainean ere euria ari duen arren, janzten dudanak janzten nauen arren. •



Supermerkatuetan erosten ditugu liburu eta diskoak.

A. CANELLADA | ARP

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Ez da kopuru kontua, justiziazkoa baizik

Gaur arratsaldean Bilboko eta Baionako kaleak beteko dira, beste behin ere, espetxe politika aldatu behar dela aldarrikatzeko. Ez dut zalantzarik milaka eta milaka pertsonak errepikatuko dutela urteroko mezua; bestelako espetxe politika behar dela alegia, Espainiako gobernuak entzun dezan.

Biharamunean zifra-dantza ibiliko bada ere, ez nau arduratzen aurtengo deialdian iazkoan baino jende gehiago edo gutxiago egongo den, gaurko aldarrikapena, honezkero, errotuta dagoelako euskal gizartean, biltzen den kopurua gorabehera.

Laster bi urte izango dira Euskal Soziometroak datu interesgarriak eman zituenetik espetxe politikaren inguruan euskal herritarrek duten jarreraz. Datu hauetan ikusten da herritar gehienak bat datozela politika hori errotik aldatzearekin, eta halaxe adierazten zuten orduko galdetegian.

Sei galdera luzatu zizkieten inkestatzaileek herritarrei. Lehen galdera zen: “Nola ikusten duzu, ETaren indarkeria amaitu ondoren, Espainiako gobernuak mantendu duen espetxe politika?”. %45ek zioen gaizki iruditzen zaiola, eta bakarrik %12k ikusten zuen egoki gaur egungo espetxe politika mantentzea.

Bigarren galdera zen: “Zergatik uste duzu gobernua gaizki ari dela?”. Eta %64k zioen «sakabanaketa mantentzen ari delako». Horrez gain, herritarren %17k zioen «ez delako babesten ari ETatik bereizi diren preso en birgizarteratzea».

Hirugarren galdera zen: “Zure iritziz, egungo egoeran, Espainiako gobernuak presoak Euskal Herriko kartzeletara hurbildu beharko lituzke?”. Eta baietz esaten zuen %73k, eta bakarrik %15ek esaten zuen ezetz.

Laugarren galdera zen: “Zer iruditzen zaizu gaixotasun larri edo sendaezin bat duten ETako presoak askatzea, legeak ezartzen duen bezala?”. Ondo ikusten zuen %71k, eta, gaizki, aldiz, %12k bakarrik.

Bosgarren galdera zen: “Badira hainbat espetxeonura legeak preso guztiei ezartzen dizkienak, besteak beste, baimenak, asteburu etako irtenaldiak, eta abar. Uste duzu espetxe-onura horiek ETako presoek

ere eskaini behar zaizkiela?”. Eta baietz esan zuen %66k. Ezetz, soilik, %20k esan zuen.

Azkenik, inkestatzaileek galdetzen zuten: “Uste duzu, egungo egoeran, Espainiako gobernuak, legearen barruan, ETako preso en birgizarteratzea erraztu behar lukeela?”. Hemen erantzunak dibertsifikatu egiten ziren: %47k zioen baietz, preso guztiena, salbuespenik gabe; %22k zioen bakarrik odol deliturik ez zituzten presoena, eta, azkenik, %20k zioen preso guztiek zigor osoak bete behar dituztela.

Soziometroaren inkesta egin zenetik ia bi urte joan dira eta seguru nago datu hauek areagotu egin direla preso en egoera aldatzearen alde. Gero eta hedatuago dago gizartean egungo sakabanaketa eta urruntzea zigor gehituak direla presoentzat eta, bereziki, beren familientzat.

Beraz, horrexegatik ez du ardura zein den bihar egunkarietan aterako den zifra-dantza, ez du ardura aurtengo jende gehiago ala gutxiago kaleratuko den, ez du axola kaleak goraino edo erdiraino beteko diren; gaur Bilbon

Espetxeak hustu behar dira, beste hainbat arrazoiren artean, Espainiak, behingoz, estatu demokratiko homologagarria dela frogatu behar duelako

eta Baionan egon ez diren askok eta askok bat egiten dutelako manifestazio en aldarrikapenarekin, kalera irten ez arren.

Eta bestalde, zifrak ez dira aitzakia. Garrantzitsuena ez da manifestari kopurua edo zenbatek erantzuten duten inkesta modu batera ala bestera. Ez da kopuru kontua, justizia kontua da. Eskaera justua denean, ez du axola kopuruak. Espetxe politika aldatzeko argumentarioa ez da bilatu behar datuetan, eskubideetan baizik.

Kartzelak hustu behar dira eskubide oinarritzkoak bete behar direlako, legea eskuan zigor asko beterik daudelako, gaixo daudenak askatu behar direlako, epaiketa guztiak ezohiko kodigopean burutu zirelako, ezarritako zigorrak neurritz kanpokoak direlako eta Espainiak, behingoz, estatu demokratiko homologagarria dela frogatu beharra duelako. •

«Hezitzaileak, umeari begira dagoen bitartean, gizarteari begira egon behar du»

Liburua mahai gainean jarrita hasi gara hizketan. “Ikastolak 2050” izenburua duen argitalpenak ariketa interesgarria proposatzen du, urte horren bueltan hezkuntzak zer-nolako erronka, zulo, aukera edota arazo izan ditzakeen biltzen saiatu baita Iosu Txapartegi *Txapas* zarautzarra. Garbi dauka egungo haurrek «erabaki garrantzitsuak» hartu beharko dituztela helduak direnean, eta horretarako prestatu behar dituela eskolak. Garbi dauka ikastolaren egitekoa ez dela hainbeste jakintzak pilatzea, pertsona txiki horiei duin bizitzeko tresnak eskaintzea baizik. Garbi dauka gauza asko, ez alferrik 30 urte inguru eman ditu Zarauzko ikastolan haurren inguruan eta haurrei begietara begiratzen, ez duelako irakasle izateko beste modurik ezagutzen.

Ikastolak «ikasteko olak» baino gehiago, haurraren garapen orokorraz arduratzen diren zentroak izan behar direla diozu liburuan.

Ez da nire ideia, edadean aurrea doan irakasle bati entzun nion behin eta gustatu egin zitzaidan. Ikastolak ja ez dira ikasteko tokiak, umeak dagoeneko ikastolan baino gehiago eta azkarrago ikasten du ikastolatik kanpo. Orduan, pentsatzen jarri beharko dugu zer izan behar duen ikastolak. Izan daiteke haurra bere osotasunean, bere nortasunean, bere gaitasunetan eta bere buruaren antolaketan osatzen joateko tokia. Formazio etiko sendoa ere eskaini beharko du seguruena. Izan ere, haurrak sendotasun bat beharrezkoa izango du, datorren gizakiak erabaki oso gogorrek hartu beharko dituelako. Eta ikastolak horretarako prestatu behar ditu etorkizuneko helduak.

Etengabe presente daukazu haurrak etorkizuneko helduak direla eta beren hezkuntza oso-tasunean landu behar dela, gorputz eta bihotz.


IOSU TXAPARTEGI

«TXAPAS»

HEZITZAILEA

Urte batzuk dira jubilatu zela, baina hezkuntzaz pentsatzen, irakurtzen eta hausnartzen segitzen du, beretzat hezkuntza ez delako ogibide bat, mundua eraikitzeko tresna bat baizik. Eta garbi dauka nolako mundua eraiki nahi duen.

amagoia.mujika@gaur8.info



Ikastoletan eta eskoletan garbi islatzen da eraiki dugun gizartea. Nagusi batek zertarako behar du langile bat? Beretzat lana egiteko. Langilea interesatzen zaio, ez pertsona. Gaur egunean gizartea horrela dago jarrita eta asko kostatzen zaigu parean duguna bere osotasunean ikustea. Irakasle askok ere ikasleak ikusten dituzte, ez dituzte pertsonak ikusten.

Uste dut oraingoz salbatzen den bakarra gurasoen eta haurren artekoa dela. Gurasoek, orokorrean, ez dute haurra ‘zerbaitetarako’ ikusten. Pertsona oso bat ikusten dute eta pertsona oso hori aurrera ateratzea nahi dute.

Baina, gainontzean, eta sistema ekonomikoa sustraitu denetik, hau edo bestea interesatzen zaigu horretarako edo hartarako. Eskoletan antzekoa gertatzen da maiz; nik irakatsi egin behar diot eta berak ikasi. Plan-teamendu horrekin ez gara ari haurrak etorkizunerako prestatzen. Gainera, haurra bizitzarako prestatzen ari bazara ezin diozu bakarrik haurrari begiratu, inguruari ere begiratu behar diozu. Eta gaur egun ingurua esaten dugunean, munduaz ari gara.

Horiek ere kritikatzten dituzu liburuan, inguruan gertatzen ari denaz informaziorik ez duten irakasleak.

Ez dut ulertzen etxetik ikastolara eta ikastolatik etxera bizi den irakasle bat; egunkaririk irakurtzen ez duena, irratarik entzuten ez duena, inguruan gertatzen denaz interesik ez duena... Nola lagunduko dio irakasle horrek haurrari mundu honetarako prestatzen berak ez baldin badaki mundu hau nola eta nora doan? Zein hezitzaile klase izango da? Hori da nire kezka.

Haurrari ez ezik, inguruari begira dagoen hezitzaile mota defendatzen duzu, beraz.

Zalantzarik gabe. Gizartea oso azkar eta etengabe aldatzen ari da. Haurrak ez dira aldatzen, ez-

ta gizakiak ere. Funtsean eta mamian maitatzeko eta pentsatzeko sistemak, memoriaren joan-etorriak... horiek berdintsu mantentzen dira. Baina gizakiak egiten dituen gauzak aldatzen dira.

Marxismoak erakutsi zuenez, uneen-uneen gailentzen den sistema politikoak, ekonomikoak eta sozialak eragin zuzena dauka gizakiarengan eta horietara moldatzen da etengabe.

Ez da berdina lanean dagoen pertsona bat eta langabezian dagoen beste bat. Egoeraz aldatzen badituzu, bati lana kendu eta besteari eman, aldatu egingo dira. Ez dira aldatzen pertsona bezala, baina egoera berrira moldatzen dira eta gauza desberdinak egiten dituzte.

Eta, seguruena, gizarte sistema orekatuago batean pertsona hobeak bezala azalduko gara, nahiz eta badugun ahalmena oso gaiztoak izateko. Eta alde-rantziz, bizi dugun egoeraren arabera oso gaiztoak izan gaitzke, nahiz eta oso onak izateko gaitasuna izan.

Pentsa ikuskera horretatik zein lan egin dezakeen hezitzaileak.

Horregatik da garrantzitsua hezitzailea ez egotea bakarrik umeari begira. Umeari begira dagoen bitartean, gizarteari begira egon behar du. Irakurtzen ditudan heziketa liburu batzuetan begirada horren falta ikusten dut. Umearen gauza onenak ateratzeko moduak bikain azaltzen dituzte, baina hortik aurrera ez dute inolako hausnarketarik egiten umearen inguruan, umearen gizartean, gertatzen denak daukan pisuaz.

Batek baino gehiagok pentsatuko du ikastolan ikasgaiak irakatsi behar direla eta munduan gertatzen direnak ez direla haurraren arazoak.

Nire ustez, iritzi okerra da. Gai guztiak hitz egin behar dira haurrarekin, adinari ondo lotuta. Baina haurra gai da txiki-txikitatik jakiteko zer dagoen ondo samar eta zer dagoen



Argazkiak: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

gaizki samar. Nik proba horiek egiten ditut eta garbi ikusten dut hori. Txikitatik egin behar da lana etorkizunean nortasun sendoko jendea izan dadin, bestela beti indartsuenek irabaziko dute eta ez dugu jakingo nola buelta eman egoera horri.

Liburuan maiz nabarmen-tzen duzu etorkizuneko masa kritikoa sortzeko behar hori.

Masa kritikoa minoria bat izaten da, eta hala izango da beti. Baina masa kritikoa horrek gutxienez galderak egiten ditu, eta galdera horiek mantentzen dute alertan masa akritikoa, zalantzak sortzen dizkiotelako. Gaur garbi dago itsasontzia norabide jakinean doala, baina garrantzitsua da tripulazioan masa kritikoa egotea. Segur aski ez du lortuko itsasontziaren norabidea aldatzea, baina denak alertan mantenduko ditu, eta tentsio hori ezin da galdu.

«Ez dut ulertzen etxetik ikastolara eta ikastolatik etxera bizi den irakasle bat; egunkaririk irakurtzen ez duena, irratarik entzuten ez duena, inguruan gertatzen denaz interesik ez duena...»



Otzanak ez diren haurren defentsa egiten duzu liburuan. Maite dituzu ados ez dauden eta protesta egiten duten haurreak.

Une batzuetan desesperatu egiten dute irakaslea, baina horiek dira gizarte baten legamia. Gizarte hau antolatuta dagoen eran –ez dakit nork antolatu zuen baina helburua garbi zuen–, beti sortzen da masa akritiko zabal bat eta, gero, masa kritikoa minoritario bat, legamia dena, lehen aipatu dugun bezala. Irakasleak joera dauka otzanak diren haurrekin ondo moldatzeko. Ez dute protestarik egiten, gauzak ondo egiten dituzte... aparte utziko nituzke saiatuak diren haurreak, horiek bestelakoak dira. Baina haur masa handi bat pasatzen da mututasun horretan. Baina gela guztietan daude bereziak diren bizpahiru haur. Horiekin modu berezian jokatu behar da; ez dira beti isilarazi behar, ez dira zi-

gortu behar besteak isilik dauenean haiek hitza hartzen dutelako... landu egin behar da haur horien protesta, desadostasuna, ikuskera. Etorkizunean oso garrantzitsuak izan daitezkeen pertsonak egon daitezke hor.

Gizartean berdina pasatzen da, berezia dena eta mundu ikuskera desberdina duena baztertzeko eta neutralizatzeko joera dago. Ikastolak ezin du horretan erori, kontu handiz jokatu behar du.

Irakasle batek «ez dakit» esatearen garrantzia ere aldarrikatzen duzu.

Gutxitan ikusten da hori. Irakasleak beti ematen du dena dakienezaren itxura. Modernismoaren akatsak dira horiek, zeozer garelako pentsatzen dugu eta oso gauza sinplea gara denok. Irakasle batek beraren eta umearen artean ataka bat jartzea errikulu hutsa da. Askotan umeak

gehiago daki, gainera. Ohitu behar gara irakasleak «ez dakit» esatera. Galdera «zer da» denean errazago erantzuten dugu, baina galdera «zergatik» denean konplikatu egiten da. Eta batzuetan ez dakigu zergatik. Irakasleak jakin behar du esaten: «ez dakit, ikasiko al dugu elkarrekin?».

Euskararekiko atxikimendu eskasa duten eta beren burua «apolitikitzat» duten irakasleak ere aipatzen dituzu.

Bai. Ari da sortzen irakasle mota bat oso ona dena bere gaietan, oso prestatuta dagoena bere jakintza arloan, baina, adibidez, euskararen kontuan ez dena inplikatzeko. Irakasleak gelatik kanpo euskaraz egiten duen edo ez ez zaio batere inporta. Uste dut ikastolei gutxien interesatzen zaien irakasle mota dela hori.

Baina, horren oinarrian beste arazo bat ikusten dut; ikastoletan ikasle mutua onartzen joan



«Ikasle mutua onartzen joan gara. Inoiz ez du galderarik egiten eta bere helburu bakarra ikasturtea ahalik ondoen pasatzea da. Ez gara ari lantzen daukan potentzialtasun guztia. Horrelako ikasleak sortzen baditugu, jendarte mutu bat baino ezin da eraiki, ez bestelakorik»



gara. Inoiz ez du galderarik egiten eta bere helburu bakarra ikasturtea ahalik ondoen eta inorekin haserretu gabe pasatzea da. Ez gara ari lantzen ikasle horrek bere baitan daukan potentzialtasun osoa. Horrelako ikasleak sortzen baditugu, amorfia horretara ohitzen badiugu, gero horietatik ezin da bestelako jendarte bat eraiki, jendarte mutu bat baino ezin da eraiki. Helburua hiritar mutuak sortzea baldin bada, segi dezagun berdin. Batzuek esaten dute hezkuntza horretarako dagoela, sistemari komeni zaion gizarte klasea diseinatzeko. Nik uste dut horren aurka egin behar dela,

utopia bat izango da akaso, baina hori pentsatzen dut.

Liburuan diozu estilo bat eraiki zuen belaunaldi hartako irakaslea zarela.

Gu irakaskuntzan sartu ginen arazo politiko bat zela-eta. Ikusten genuen amaitzen ari zela gure herriaren izaera. Diktadura luze baten ondorio larriak jasaten ari ginen kultura eta hizkuntza eta horri buelta eman nahian sartu ginen irakasle belaunaldi oso bat. Gu oso zentratuta egon gara euskararekin eta euskal kulturarekin, eta horien alde lan egiteko espazio bat izan da ikastola.

Proposamen interesgarriak egiten dituzu. Esaterako, zientzialarien ereduari segituz, hiruzpalau irakasle batera gai baten inguruan hizketan aritzea. Berria da hori, ez da egiten, eta egin beharko litzateke. Kontua erraza da, gai bat proposatu eta hiruzpalau irakaslek horri buruz hitz egitea. Hartara, haurrak baten eta bestearen ikuspuntuak ikusten ditu eta ez dago beti irakasle bakarra entzuten.

Beste proposamen bat: Astean hamabost bat minutu eman haurrari barne gogoetarako. Barneko gogoeta eta barneko begirada oso garrantzitsuak di-

ra. Horren aldekoa naiz ni, haurrari utzi hamar-hamabost minutu gogoeta egin dezan; izan daiteke gai bat emanda edo gairik gabe, modu librean. Auskalo, akaso pentsatzeko gaitasuna galduta dauka ume horrek. «Zertaz pentsatzen aritu zara?» galdetu eta agian «ez dakit» esango digu. Autoelkarriketa, norberaren buruarekin hitz egiteko gaitasuna oso garrantzitsua da, hori ezin da galdu.

Bere herrian sustraituta dagoen kontzientzia hiritar unibertsala aipatzen duzu. Joxe Azurmendi maisu handiaren ideia da hori. Ez dut ikusten

unibertsal izateko beste modurik. «Ni unibertsala naiz» esaten dutenek ez naute konbentzitzen. Zure lekuak eman dizun izaera galdu eta unibertsala izatea ez dut ulertzen. Zuretik, zure herritik, zure nortasunetik izan zaitezke unibertsal, nire ustez.

Guk urte txarrak pasatu ditugu, indar handia jarri behar izan dugu gure hizkuntzan eta gure kultura. Gurea pixka bat sendatuta dagoela –nahiz eta oraindik ez gauden oso sendatuta–, segur aski mundura begiratzeko moduan gaude.

Eta mundura begira jarrita, munduan ematen diren arazo asko gure estiloarekin konpon daitezkeela iruditzen zait. Eta horrek ematen dit poza eta itxaropena. Gure umeak munduan nagusi diren eskema horietan hezten badiugu, gaizki ari gara, ez dutelako ezer berririk proposatuko munduko arazoak konpontzen joateko. Baina guretik eta gure paradigmatatik –herri txikia gara, hizkuntza txikia dugu, arbasoetatik datozkigun balio indartsuak ditugu...– jar gaitzek munduari begira, izan gaitzek unibertsal, eta segur aski gauza oso interesgarriak proposatu ditzakegu. Horretan hezi behar ditugu gure umeak, mundua bizitzeko moduko tokia izan dadin lan egin dezaten.

Haurrei begiratzeko zure moduan beti dago presente etorkizuna; ez duzu sekula ahazten etorkizuneko helduak direla.

Ez da ahaztu behar. Gaur modan dago esatea umea bere oraingotasunean hartu behar dela, umea orain hartu behar dela. Noski umea orain hartu behar dela, baina ez da ahaztu behar etorkizunean heldua izango dela eta munduan erantzukizun bereziak izango dituela. Hezkuntzak bizitzeko tresnak eman behar ditu, bizitza orekatuagoa eta gerrak saihestuko dituen. Horrek esan nahi du injustizia handien kontra egingo duen jendea hezi behar dugula, beti ikuspegi orekatu batekin arituko dena.



Juanan RUIZ | ARGAKZI PRESS



IKUSMIRA

HAIN FINAK, DOTOREAK ETA BIKAINAK

Eraztun izugarriak; oihal bikainenak eta distiratsuenak; urrutitik ikusteko moduko kapelak eta auto deskapotableak. Errege Magoak ez dira tontakeriatan ibiltzen gero. Desfile luze-luzeak eta argitsuak egin dituzte han eta hemen. Pentsa, Donostian suhiltzaileek kamioia atera behar izan dute opari guztiak eramaten laguntzeko. Olentzero eta Mari Domingirekin akordatu naiz, eta beren asto txikiarekin. Olentzerok ez dauka distira handirik (nahiz eta urterik urte argalago eta txukunago agertu. Argalegi

eta txukunegi, agian?); lanak zaildutako bere eskuetan ez dago eraztunik eta, segur aski, sekula ez litzateke paseatuko karroza argitsu-erraldoi-koloretsu horietako batean. Printzipio kontua. Baina, zerk pizten ditu gehiago gure haurren begiak? Argiak eta diamanteak? Langile xumearen pausaje umilak? Zein mezu iristen zaizkie batetik eta bestetik? Errege Magoak hain finak, dotoreak eta bikainak irudituta, aurten ez diet aterik ireki, zer eskaini ere ez nekielako. amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Kalabaza eta bere haziak

Zapoz gozoak diren kalabazak mundu guztian zehar banaturik aurkitu daitezke tamaina, forma eta kolore ezberdinekin. Izan ere, 800 barietate baino gehiago daukela estimatzen da. Arrautza baten tamaina izan dezakete kalabaza mota txikienek, eta 100 kiloko pisua har dezakete, aldiz, handienek. Euskal Herriko kliman, apiriletik aurrera erein, maiatza erdialdean landatu eta udazken hasieran batzen dira, urte guztian zehar gorde eta jan daitezkeelarik. Gordetzeko, toki lehorra behar da, 15°C inguruko tenperaturarekin. Kukurbitazeoen familiako barazki honek estimazio handia dauka gure mahaietan, baina ez da hori bere erabilera bakarra, animalien bazka bezala ere baliatzen baita aspaldidanik. Horrezaz gain, apaingarri gisa ere erabiliak dira behin lehortuta, baita ontzi bezala ere.

OSASUNARENTZAT PROPIETATE UGARI

Osasunaren alorrean propietate ugari dauzka kalabazak. Gantz gutxien duen jaskia da, eta sodioan oso pobrea da, hortaz, gure arteriak egoera egokian mantentzeko aproposa dugu. Kaloria gutxi eskaintzen dizkigun arren, daukan zuntzari esker asebetse sentsazioa ematen du. Kalabaza aproposa da haurrek litxarkeria ugari jaten duten egunetarako: zuntzari esker, odoleko azukrea erregulatzen laguntzen du, eta, txiza egitea eragiten duenez, gorputzak errazago kanporatuko ditu jandako litxarkeriak. Arrazoi berarengatik, helduentzat ere egokia da, bereziki sasoi honetan, elikaduran hainbesteko gehiegikeriak egin ditugunean.

Mamiaz gain, kalabaza haziak edo pipak ere jangarriak dira, xigortuta (ikus erreze-ta) edo gordinik. E bitaminan oso aberatsak dira, baita omega 3 eta omega 6 azidoetan. Zink eta burdin kopuru handiak dituzte haziak, eta horrek gorputzeko defentsak indartzeko lagungarri egiten ditu.

Kalabaza hazien beste erabilera bat da haurretan ohizkoak diren heste-zizareen aurkako tratamendu gisa. Kurkubitazina sustantziari esker zizareak moteltzen dira eta kakatan kanporatzea ahalbidetzen da.



Haritz MAYORA

Baraurik jan behar dira xigortutako haziak, koilarakada bat, eztiarekin lagunduta. Zizareak desagertu artean jan behar dira.

Ohikoena kalabaza purean prestatzea bada ere, erabilera aunitz ditu sukaldean: izan zoparen osagarri gisa, izan lekari- en lagungarri gisa, edota azenarioa ordezkatu- z. Arrozarekin edo labean erreta janda aparta da. Pateak eta marmeladak egiteko

aproposa da, baita kalabaza bizkotxoa egiteko ere. Gaurkoan aurkeztan dugun erre- zetan, pizza orean ordezkatzan du kalaba- zak; bai zeliakoentzat bai ez direnentzat ere pizza beste era batean jateko errezeta dugu. On egin!

Sabrina Pato, sukaldaria eta elikadura aholkularia

Kalabaza pizza

OSAGAIK

Kalabaza
Tomatea kontserban
Kipula
Perretxikoak/onddoak
Baratxuria
Gazta birrindua
Oreganoa
Olio
Gatza

PRESTAKETA

1. Kalabazaren zati lodiena aukeratu behar da, piparik ez duen puska.
2. Zentimetro bateko lodierako lau xerra moztu.
3. Kalabaza-xerrak olioarekin igurtzi eta labeko erretiluan ipini.
4. Labera sartu 10 minutu inguru 180°C-tan, bigunak egon arte.
5. Bitartean, kipula ebaki eta olioarekin erregosten jarri. Baratxuria gehitu.
6. Onddo edo perretxikoak sukaldeko zapi umel batekin garbitu eta zatitu.
7. Kipula eta baratxuriari gehitu eta egiten utzi, gatz puntua emanez.
8. Kalabaza xerrak eginak daudenean, labetik atera.
9. Kalabaza gainean kontserbako tomatea zabaldu.
10. Oregano apur bat bota.
11. Kipula eta perretxikoak tomatea- ren gainetik jarri.
12. Gazta birrindua gainetik bota.
13. Labera sartu 220°C-tan 5 minutuz.

KALABAZA PIPAK

Kalabazaren pipak apur bat garbitu behar dira. Ondoren, gatz apur batekin igurtzi eta erretilu batean luzatu. Labean sartu 200°C-tan eta 5-10 minututan prest daude. Zartagin batean ere xigortu daitezke, olio gabe eta su ertainean. Hoztutakoan jan. Gorde nahi izanez gero, kristalezko ontzi batean mantendu daitezke.

Zaharrak berri

Antton Izagirre

Urte zaharra itxi eta berria abiatzearekin asmo eta desio berriak jarri ditugu egutegian. Nonbait urtero geure buruari eta gizataldeari eginarazten diogu ohiko ariketa. Maila pertsonalean eragindakoa –intimitatean aitortzen ditugunak– alde batera utzita, baditugu urte berriarekin batera euskal gizartearen aurrerabidean jartzeko desio eta premia bereziak.

Errealitateari aurrez aurre so eginez, belaunaldi berrientzat lanaldi eta bizibide duina izateko eskubidea eskatzea ez da inolaz ere ameskeria, etorkizuneko gizartearen era sano, integratu eta parte hartzailean garatzeko ezinbesteko eskaria baizik. Hori ezean gure gizartearen mai-

lakatu, zatitu eta etsipenean erortzeko arriskuan legoke.

Nola eragin politikan, nola animatu gazteak politikan aktiboki integratzera, etorkizuneko gabeko gizarte batean irautera kondenaturik diren, beste aurreikuspenik gabe bizitzera kondenaturik diren ustea gailentzen denean?

Belaunaldi berriek eraiki behar duten gizarte berri horretan sinetsi behar dute. Nola bestela parte izan eta partaide sentiarazi? Lanik gabe edo zabor-kontratuek eskainitako etorkizunaren esklabo denak izan al lezake gizarte honetaz apustu egiteko motibo eta desiorik?

Urte berriarekin konpondu gabeko arazo politiko zaharrak geratu zaizkigu:

Kataluniako alderdi abertzaleen arteko konpenezina, Estatu mailako gobernagarritasun eza, Euskal Herriko indar politikoaren korrelazio berriak, presoaren sakabaketa eta mendekua, gatazkaren blokeoa...

Hala ere, etorkizuneko euskal gizartearen prekarietatea, langabezia, pobrezia, duintasunik gabeko bizibideak gainditzea erronkatzat hartu behar ditu. Gabeki eta ezintasun sozial horiek gainditze bidean jartzen dituen belaunaldi berriak izango du kementa gainerako auzi politikoei eutsi eta aurre egiteko, baina gizatasuna ukatzen zaion gizakia ez da deus; borroka egin eta politikan konfiantza galtzeko arrisku latza du. •

Ispiluaren aurrean

Andoni Egia

Kataluniako prozesuak dituen elementu interesgarrien artean interesgarriena, nire ustez, agente ekonomiko, politiko eta sozial guztien jarrerak, diskurtsoak eta estrategiak azaleratu dituela da, eta ez bakarrik agerikoak direnak, baizik eta –eta batez ere–, mozkorrak gaudenean bezala, barru-barruan daramagun hori bistaratu duela.

Esan beharra daukat zazpi urte igaro ditudala Katalunian. Kostata izan bada ere, politika kataluniarrak dauzkan ardatz eta erpin ugari eta anitzak ikusarazi dizkirate, uler nitzan saiatuz. Horretarako egin behar izan nuen lehenengo pausua, gogorrena, euskaldun izateak ematen digun superioritate politikotik aldentu, mundua ulertu eta esplikatzeke erabiltzen ditugun betaurrekoak apurtu,

eta hain urri daukagun sakoneko umiltasun ariketa bat egitea izan zen. Euskal gatazkak sortu duen “Gu” eta “Haiek” sinple hori alde batera utzi, eta “Gu” eta “Haiek” berri bat eraiki; zabala, anitza, konplexua. Horrela, prozesua modu oso pertsonalean bizi izan dut, nire herria omen den honen erraiak ikusteko aukera eman didala ohartu naiz. Eta galderak sortu zaizkit, bata bestearen atzean: «Nor gara gu? Zer dakigu guk? Zertan ari gara gu?».

Suminduta nago, triste, haserre. Eskerrak euskaraz inork gutxi dakien, eta eskerrak Euskal Herrian bakarrik dakigun. Eskerrak gure kide katalanek ez duten ulertzen eta guk esandakoak hemen bakarrik gelditzen diren, lotsagarria baita, etsigarria. Gogorarazi nahiko nuke Euskal Herriaren askapenerako burutu diren estrategia eta ekintza guztiek porrot egin

dutela nabarmen: bakegintzan, esperpentoa; arlo politikoan, blokeoa; eta, eremu sozialean, neutralizazioa. Iruditzen zait, onartzen hasi beharko genukeela frankismo amaieratik egin ditugun irakurketa politiko guztiak okerrak izan direla, eta orain arteko akats guztiek gauden tokira eramane gaituztela, gure kabuz eta gure erruz. Horrela bada, mesedez, utz diezaiegun beraiei prozesua beste optika, beste estrategia eta beste aliantza batzuekin entseatzen.

Arren, isil gaitzezen, izan gaitzezen umilagoak, izan gaitzezen solidarioak. Elkartasun internazionalista hori baita, subjektu bakoitzaren estrategia eta praktikak ezbaian jarri gabe, behar den guztia eskaintzea, ondoan egotea, gainontzekoen erasoaren aurrean babesa ematea. Eta azkenik, ikas dezagun, premia larria dugu-eta. •



Bob EDME | ARGAZKI PRESS

infraganti JESSICA BERRA

Jessica Berra hendaiarrak bigarren urtez jarraian irabazi du Itsasoko Arrauneko Munduko Txapelketa. Azken garaikurra Perun eskuratu zuen iragan azaroaren amaieran, Selene Gigliobianco italiarraren eta Stephanie Chantry frantziarraren aurretik helmugaratuta. Horrenbestez, egungo espezialistarik onena dela berretsi eta 2014an itsasoaren baldintzengatik soilik irabazi zuela argudiatzen zutenak isilarazi ditu.

Oso kontentu nago. 2014an ere munduko txapeldun izan nintzen baina ez da gauza bera, esan daiteke ordukoa sorpresa izan zela. Itsasoa nahasia zegoen, olatu askorekin, gainerako neskek ez zuten ondo egin arraunean, eta, ni, aldiz, egoera horretan primeran moldatu nintzen. Aurten, ordea, lan asko

egin dut hobetzeko eta merezitako saria izan da berrirori urrea lortzea», kontatu du Berrak. Onartzen du lehen lorpen hura ezustekoa izan zela, izan ere, Munduko Txapelketaren aurretik jokatu zen Frantziako Txapelketan laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen Endaika arraun elkarteko arraunlariak, eta podiuma osatu zuten beste hiru aurkariak lehiakide izan zituen Mundukoan. Hala-

ber, sailkatze fasean jokatu ziren serietan ere berea izan zen denborarik kaskarrena finalerako txartela lortu zutenen artean. Hortaz, aurreikuspen guztiak hankaz gora jarri zituen: «Nik atsegin dut itsaso nahasian eta olatuen artean arraun egitea, ez naiz kikiltzen baldintza ankerretan. Aitzitik, hazi egiten naiz. Beste neska batzuek, ostera, ez dute itsasoan entrenatze-ko aukera askorik izaten, eta, ge-

ro, kosta egiten zaie egoera horietara egokitzea». Dena dela, egindako balentriaren meritua aitortu beharrean, zenbaitzuek nahiago izan zuten hendaiarra kritikatzeko, gainerako arraunlariak Berra baino gehiago zirela esanez, eta itsaso barearekin kontua oso bestelakoa izango zatekeela. Komentario horiek min egin zioten lapurtarrari: «Aurten itsasoa bare zegoen, eta, beraz, erakutsi dut baldintza lasaietan ere onena izan naitekeela».

Estropada erabakigarria nola gogoratzen duen galdetuta haxe da egindako deskribapena: «Prestakuntza lan sendoa burututa eta gorputzaldi onarekin iritsi nintzen Perura. Gainera, sailkatze serietan [lau kilometroko estropada] bigarren denbora onena egin nuen eta horrek konfiantza handia eman zidan finalari begira. Finalean [sei kilometroko estropada] lehen buietara oso parekatuta iritsi ginen arraunlari guztiak, baina ni lehen postuan irten nintzen, nahiz eta aurkari bat oso gertu nuen. Bigarrenengo buietan olatu bat hartu nuen, eta, ondorioz, aurkarietako distantzia nabarmen handitu nuen. Abantaila hori ondo kudeatu nuen, kontzentrazioa mantendu nuen probaren amaierara arte eta niretzat izan zen garai-pena».

Munduko Txapelketa birritan irabaztea ez da marka makala. Hala ere, lorturikoa ez zen nahikoa izan Frantziako egunkarietako orrialdeetan lekua egiteko: «‘Sud Ouest’ egunkariak jarraitzen ari ziren Munduko Txapelketaren aurretik, bitartean, eta, baita, urrezko domina lorturikoan ere. Gainerakoek, aldiz, garaipenaren berri ere ez zutela eman uste dut». Berraren irudiko horrelako lorpen batek tarte handiagoa merezi du hedabideetan, baina ikusezintasun hori ez dio atxikitzen emakume izateari, baizik eta kirol minoritario bat praktikatzeari: «Egia da Frantzian ere emakumeok egiten dugunak ez duela gizonen adinako oihartzunik izaten. Hala ere, nire kasuan eragin handia du kirol minoritario bat prakti-

katzen dudala, eta, ondorioz, jasotzen dugun arreta are eta urriagoa da».

ENDAIKA ARRAUN ELKARTEA

Txikitan tenisean ibilitakoa da Berra, baina ez zen erabat asebetetzen zuen kirola. 13 urterekin probatu zuen estreinakoz arrauna udarako oporretan, eta orduan piztu zitzaion sugarra oraindik ez da itzali: «Egia da kirol gogorra dela, baina uretan sentitzen duzunak badu zerbait berezia eta hori lehen momentutik nabaritu nuen». Hala, Endaika arraun elkartean sartu zen eta han dihardu ordudanik. Goi mailako arraunlari ez ezik, Endaika presidentea ere bada Berra. «Azken presidentek kargua utzi nahi zuela adierazi zuten ordezkoa aukeratzea egokitzen zen. Jendea nire izena aipatzen hasi zen, eta, beste inor ez zegoenez, baiezkua eman nuen. Hasieran ez nuen nahi, baina elkartearen biziraupenerako funtsezkoa zen eta onartu egin nuen». Halere, lan kon-tuengatik astea Bordelen igarotzen duenez, jende mordoa du bere alboan lanean, eta aitor-tzen du haiek arintzen dizkiote-la presidente izateak dakartzan erantzukizunetarik asko eta asko. «Taldea bat gara, elkarri asko laguntzen diogu, eta, ni astean zehar Bordelen nagoenez, egun horietan egiten diren bileretara klubeko beste ordezkari batzuk joaten dira. Klubak bi estropada antolatzen ditu urtean, bata, martxoan, eta, bestea, irailean, eta ni batez ere horien antolaketaz eta koordinaketaz ardura-tzen naiz».

Astea etxetik kanpo igarotze-ak entrenamenduak egokitzea behartzen du. Hala, astelehene-tik ostiralera batik bat alor fisi-koa zaintzen du: «Bordelen ergometroan, bizikletan eta korrika aritzen naiz, eta batzue-tan gimnasia ere joaten naiz indarra lantzerako. Ondoren, aste-buruan Hendaiara bueltatzen naizenean ontzian sartu eta itsasoan egiten ditut lan saioak». Negu partean entrenamen-du mordoa hotz handiarekin eta euripean egin behar izaten ditu, baina hori ez omen da aitzakia

itsasora irteteari uko egiteko: «Niri ez zait axola baldintza horiekin itsasoratzea. Horrelakoe-tan ere gustura entrenatzen dut [kar, kar, kar]».

Arraunlari eta presidente ez ezik, entrenatzaile ere bada. Gazteekin lan egitea eta haiei erakustea atsegin du eta ahal duenean haien alboan egoten da. «Klubeko gazteei laguntzen eta aholkuak ematen saiatzen naiz eta aukera dudanean estropadetara ere laguntzen diet. Nire bizitza arraunaren jiran antolatua dago gaur egun». Hasi berriak diren gazteentzat garrantzitsua da erreferenteak izatea, non begiratu edukitzeko, eta, hain zuzen, figura hori betetzen du Berrak klubean. Endaikako arraunlari bat horren urrun iritsi den lehenbiziko aldia da. «Egia da gazteentzat garrantzitsua dela lorpen handiak dituzten kirolariak alboan izatea. Dena den, nik uste nuen nire urrezko dominek arraunera jende gehiago hurbiltzeko balio-ko zutela baina ez dugu nahi bezainbesteko aldaketarik sumatu. Jende askok ez du ezagutzen arrauna eta nahiago dituzte surfa edo futbola bezalako kirolak, sona handiagoa dutenak».

HONDARRIBIKO TRAINERUAN ARITUA

Endaika klub txikia da. Iragan denboraldian 78 arraunlari zeuden izen emanda, elkarteak inoiz izan duen kopururik handiena. «Ez da erraza jendea erakartzea, baina pixkanaka hazten ari gara eta joera ez etetea espero dugu». Gero eta emakume gehiago animatzen dira arrauna praktikatzera, baina, gaur-gaurkoz, gizonetzkoak dira nagusi. «Endaika %30 inguru gara emakumezkoak, oraindik bide asko dugu egiteko».

Hondarribiko arraunlari batzuk Endaikara joaten dira txapelketa zehatz batzuetan parte hartzera. Truke horietako batean ezagutu zuten Berra Hondarribiko ordezkariak eta haien traineruan parte hartzea eskaini zioten: «Hondarribiko arraunlari batek hots egin zidan haien taldera joateko gonbita luzatuz. Probatzera joan nintzen, eta, oso eroso sentitu nintzen, tal-

dean geratzea erabaki nuen». Hiru urtez aritu ziren traineruko estropadetan parte hartzen, baina 2014an taldeko neska kopurua jatsi ondotik modalitatea aldatu eta zortziko arraun olinpikora igaro behar izan zuten: «Hasieran pena eman zigun, baina, era berean, beste modalitate batean aritzeko aukera izan dugu». Hondarribikoa zinez esperientzia aberasgarria suertatu zaio, nahiz eta hasieran hizkuntzaren ondorioz taldekideekin komunikatzeko zailtasun batzuk izan: «Nik ez dakit euskaraz eta garai hartan gaztelaniaz ere hala moduz moldatzen nin-

Arrauna 13 urterekin probatu zuen estreinakoz: «Egia da kirol gogorra dela, baina uretan sentitzen duzunak badu zerbait berezia eta hori lehen momentutik nabaritu nuen»

Endaika klub txikia da. Iragan denboraldian 78 arraunlari zeuden izena emanda. Arraunlaria izateaz gain, Berra Endaikako lehendakaria eta entrenatzailea ere bada



Bob EDME | ARGAZKI PRESS

tzen. Hasieran ez nuen gehiegi hitz egiten, baina pixkanaka nire gaztelania maila hobetzen joan naiz». Taldekideek oso harre-ra ona egin zioten eta saiakera berezia egin zuten lehen unetik bertatik taldean barnera zedin: «Neska batzuek bazekiten zerbait frantsesez eta haiek asko lagundu zidaten».

GAILURREAN MANTENTZEA HELBURU

Itsasoko arrauna ez da modalitate olinpikoa, eta, hortaz, Berrak ez du Rio de Janeiron egoteko aukerarik. Bere kategorian Munduko Txapelketa da arraunlari batek irabaz dezakeen txapelketarik preziatuena. Beraz, Berrak ukitu du dagoeneko gailurra. «Nik ez nuen imajinatzen lortu dudan guztia irabaztera iritsiko nintzenik. Urte batzuk atzera munduko onena izatera iritsiko nintzen galdetu izan balidate erantzuna ezezkoa izango zen. Baina lan asko egin dut, pixkanaka nire mailak gorantz egin du eta oso pozik nago».

Askotan esaten da zailena ez dela gora iristea, mantentzea baizik. Eta hori da, hain justu, Berrak orain esku artean duen

erronka. «Maila oso altua dago, urtetik urtera handiagoa, eta badakit ez dela erraza izango. Baina onena izaten jarraitu nahi dut eta horretarako gogor entrenatuko dut aurrerantzean ere».

Halaber, aurtengoa urte berezia da Berrarentzat, izan ere, Munduko Txapelketa Monakon jokatu da urrian, eta etxetik gertu irabazteak ilusio berezia egingo lioke. Horrenbestez, zita hori mugarri izanda antolatuko du bere prestaketa guztia, eta horrek momentuz Hondarribiko taldeari agur esatea dakar. «Uda ostean da Munduko Txapelketa, eta, udaran Hondarribian aritzen banaiz, ez daukat aukerarik nire modalitaterako behar adina entrenamendu berezitu egiteko, eta, beraz, albo batera utziko dut».

Hori bai, Hondarribiko taldeari agur baino gero arte esango dio: «Asko gozatu dut beraiekin eta ez dakit etorkizunean zer gertatuko den. Nik ez dizkiot ateak behin betiko ixten, baina, esan bezala, uneotan beste lehenetasun bat dut».

Mikel Ibargoiien



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikertzailea

Gabon solidariorik ez dago, konponbidea politikoa delako

Solidaria,-o" 1990eko hamarkadan ltoitzeko (Nafarroa) urtegiaren aurka borrokatu zirenei esaten zitzairen. EITBk "maratoi solidarioak" antolatzearekin batera, 2000tik aurrera, "solidaria,-o" emozioak bultzatuta dirua ematen duenari esateko erabiltzen da. Ez da harritzekoa "uholde solidarioa" krisialdiaren eraginpean gauzatu izana, Jauralaritzak gastu soziala murriztu duelako. Beraz, krisialdiak "solidario" egin gaitu. Baina "solidaritatea" ez da apolitikoa: eskumakoa da, karitatea delako, premia sozialak unean uneko ekitaldiak balira bezala ulertu ditugulako.

Karitatea da arazo sozialei izaera politikoa kendu dielako eta emozioarekin bete. Horregatik, gero eta "ekitaldi" gehiago egoten da.

- «*Miles de chapuzones a favor de la investigación sobre la esclerosis: Ya van 18 ediciones*» (GARA, 2015/07/13).

- «*Una marea rosa corre por el cáncer de mama en Bilbao*» ("El Correo", 2014/10/12).

Ez dut ezagutzen minbiziaren alde da goen inor. Minbiziari aurre egiteko baliabideak, baina, ezinbestean politikoak dira. Dirua jasotzea afektatuen urgentziazko beharrei erantzuteko tresna da. Erakundeek dirua horretan ere gastatu beharko lukete. Diru nahikorik ez balego, beste diru-sail batzuetatik kendu beharko litzateke: herritarrek politikaren lehentasunak finkatzeko indarra dutelako.

Jauralaritzak 2016rako aurrekontua onartu berri du: 10.933 milioi eurokoa izango da. Jendarte mugimenduek jakinarazi dutenaren arabera, aurrekontu horren %10 (1.000 milioi euro) Europako zorra eta horren interesak ordaintzeko erabiliko da. AHTren lanek 350 milioi euro hartuko dituzte (aurrekontuaren %3,2), eta, Espainiako gastu militarrek (Kupoaren bidez ordainduta), 700 milioi (%6,4). Jendarte larrialdietarako aurrekontua (erabateko txirotasunari aurre egiteko unean uneko laguntza) iazko bera izango da, iaz urtearen lehen bost hilean agortu bazen ere: 23 milioi (aurrekontuaren %0,21).

Aurten gaixotasun arraroez arduratzen diren elkarteei laguntzeko 373.903 euro eman dituzte EITBko ikusleek. Datuak ikusita, EITB maratoniak jasotako dirua huskeria da erakundeentzat, eskatzen duen herritarren esfortzua kon-tuan izanik. Gainera, merkatuaren legea pairatzen du: emozioen arabera diru gutxiago edo gehiago ematen da. Horrela, umeen minbiziaren aurkako 2012ko telemaratoiak 807.680 euro jaso zituen, eta gutxien 2009ko gaixotasun kardiobaskularrek (169.637 euro) edo 2000ko atleta paraolimpikoei (180.000 euro). Gainera, diru kopuru horiei deiak jasotzeko *call center* enpresaren kostuak kendu behar zaizkio.

Herritarren ongizatea ziurtatzen ez duen jendarteak neurri politikoak exijitu behar ditu:

- «*Afectados por fibromialgia y Síndrome de Fatiga Crónica reclaman mayor integración: Afectan a entre 20.000 y 30.000 personas en Bizkaia, en su mayoría mujeres*» ("El Correo", 2015/05/12).

- «*Grado amaierako lan batean, EHUKo ikasle gorrek dituzten beharrei erantzun egokia emateko sentsibilizazio premia nabarmendu du Elene Sorazuk*» (GARA, 2015/10/31).

Athletic maskulinoko jokalariek 540 euro kobratzen dute orduko, zergetatik garbi. Ia gutxieneko hileko soldata ordubetea, erakundeek lagunduta:

- «*Denis Itxaso: 'La Diputación [de Gipuzkoa] aportará 3,4 millones a la remodelación de Anoeta'*» (Diario Vasco, 2015/12/29).

- «*Eusko Jauralaritzak 2,2 milioi euroarekin parte hartuko du San Mames Barria sozietatearen kapital zabalkuntzan*» (Europa Press, 2015/12/29).

Jendarte mugitu eta eragiteko gai izan diren lagunen adorea eskertzekoa da, ez dutelako haien inguruko-enganatik egiten, jendartean denok leku egokia izan dezagun baizik. Estatuari gure ongizatea dagokiolako. Ez da justua afektatuek zama ekonomiko osoa eramatea. Aurtengoan, historian lehenengoz, Athleticen jokalariek dagozkien zergak ordaindu dituzte, Europak horrela agindu eta gero. Beraz, aurten Bizkaiko Foru Aldundiak hamar milioi euro gehiago jaso ditu, Athletic taldeko gizonezkoek azkenean ordainduta. Diru hori jendarte larrialdietarako bidera dezaten presio politikoa egingo dugu? •



Iazko Errege Egunean, Gasteizen, besarkadak «oparitzen» ibili zen gizon bat.

Juanan RUIZ | ARP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FELIX LOPEZ DE MATORANA

1951-1960: HAMAR URTE ETA 75 ELURTE DONOSTIARENTZAT

1951 eta 1960 artean 75 aldiz elurtu zen Donostia, batez beste 10-15 zentimetroko elur-kapak pilatuz. Elurra egin zueneko egunik hotzena 1954ko otsailaren 1a izan zen: $-9,4^{\circ}\text{C}$. Irudian erabat elurtua agertzen zaigu Gipuzkoako hiriburua, Igeldorako bi-dea egiten zuen autobus bakarti batekin. Gisa horretako autobusek, fabrikazio ingelesekoak zirenak, 1948 eta 1967 artean zirkulatu zuten Donostian. Argazkia Felix Lopez de Maturana nafarrak egina da. Argazki denda bat zeukan Hernani kalean, eta bere argazki ezagunenak Paseo Berrian olatuei ateratakoak dira.



GAUR8 ireki gure leihoa

